


MAKINEN GARUNEAN

Gorka Azkune Informatikan doktorea eta
adimen artifizialean aditua eta aritua da.
Makinen barrunbeekin lan egiten du 20

LAGUN ONAK FUTBOL TALDEAREN 75. URTEURRENEKO
"FUTBOLA BIHOTZEAN, BALIOAK ZELAIAN"

LIBURUA SALGAI



GARMENDIPEKO BULEGOAN eta
OSTEGUNETAN GURE DENDAN (DONE JAKUE KALEAN)

10 €



uztarria

Argitaratzailea. Urolako

Komunikazio Taldea Koop. Elk.

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.eus

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. ISSN 1576-7337

Zenbakia. 222.a (2019ko abendua)

Urtea. XX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685780412 /

uztarria@uztarria.eus

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. I. Elustondo

Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



DOMUSA
TEKNIK



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2019KO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?

04



16



34



iritzia

Inkesta. Zer egiten duzu mugikorreko argazkiekin? **13**

mamia

Elkarrizketa. Miren Gurrutxaga boluntarioarekin solasean **04**
Klik! Uztarria aldizkariaren hogeitau urteotako protagonisten aurpegiak, erakusketara **16**
Erreportajea. Azoka Plaza 2.0 egitasmoa jarri dute martxan **24**

jakiteko

Bestaldetik. Nagore Alkorta Azpeitiko alkatea ezagutzen **34**



Ba al dakizu tokikom sarietako Eduki onenaren finalista izan dela uztarria, 'Heriotza parez pare' Lanagatik? Uztarria

Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi eta Patxi Azkargorta.

MIREN GURRUTXAGA

boluntarioa

“Boluntario izatea arduraz hartu behar da”

Gaztetatik hainbat elkartetako boluntarioa izan da Gurrutxaga, eta egindako lanak asko eman diola dio. Boluntariotza sustatzen dabil. 📝📞 Maialen Etxaniz

Miren Gurrutxagak urteak daramatza jendeari laguntzen. Gaztetan lotu zen boluntariotzara, eta orduz gerotik ez da gelditu. Egun, Gizalde Gipuzkoako boluntariotza agentziako langilea eta Caritaseko boluntarioa da. Lanean jarraitzeko grinarik ez zaio falta.

Zer da boluntario izatea zuretzat?

Nire iritziz, gizartean parte hartzeko era asko daude. Edozein pertsonak parte har dezake era bateko edo besteko taldeetan nahiz ekimenetan, hala nola aurrekontu parte-hartzaileetan, auzo zein kirol elkarteetan... Parte hartze horiek guztiak positiboak, sustatu beharrekoak eta onak direla uste dut. Baina boluntariotza parte

hartzeko beste modu bat da. Eta zergatik da ezberdina? Araututa dagoelako. Boluntariotza lege bat dago, eta lege horrek esaten du zer den boluntariotza eta zer ez. Boluntariotzaren ezaugarrietako bat da besteen alde egiten den lana dela, eta interes pertsonalik gabekoa. Betiere, jarraikortasun batekin eta elkarte baten barruan egiten den lana izan behar du, diruz ordaindutako lanposturik ordezkatzeko ez duena.

Nola hasi zinen mundu horretan murgiltzen?

Kontziente izan gabe iritsi nintzen boluntario izatera. Gaztea zaren gauza batek bestera eramaten zaitu. Ni betitik izan naiz pixka bat lodia, eta gurasoek mendira joatera animatu ninduten, mendi-

|||DATUAK|||||||

|||Jaio. 1968ko uztailaren 4a.

|||Herria. Azpeitia.

|||Bizitokia. Azpeitia.

|||Lanbidea. Gizalde Gipuzkoako boluntariotza agentziako langilea.

zaleen elkartekoekin. Han lagunak egin nituen, eta gustura joaten nintzen antolatutako ekintzetara. Handik gutxira hasi nintzen elkartean nire alea jartzen, 16 urte ingururekin: bileretara joan, ekintzak prestatu, antolatutako jarduerak iragarri... Hura izan zen nire aurreneko lan boluntarioa, eta konturatzerako, luzerako konpromisoa bihurtu zen. Orduan ez nintzen kontziente boluntarioa nintzela. Parrokian ere ibiltzen nintzen, eta gerora aisialdiko hezitzaile izateko titulua atera nuen.

Horri esker urritasun fisikodun pertsonekin hasi nintzen lanean, eta ondoren, Gizakia Helburuko kideekin. Konpromiso handia eskatzen du horrek, Gizakia Helburuko erabiltzaileek behar baitute boluntarioen laguntza hori. Denbora luzez egin genuen lan haiekin. Gauza batek bestera eramaten zaituenez, horrela hasi nintzen Gizalden lanean. Caritaseko boluntarioa ere banaiz gaur egun. **Zein da Gizalde agentziaren zeregina?**

Herritarren artean boluntariotza eta parte hartzea sustatzea da Gizalderen helburu nagusia. Horretarako, boluntario izan nahi duten pertsonen informazioa, orientazioa eta oinarritzeko formakuntza eskaintzen die. Era bere-



an, aholkularitza eta baliabideak eskaintzen dizkio Gipuzkoako elkarte sareari.

Zergatik animatzen da jendea boluntario izatera?

Edozerk bultzatzen zaitzake boluntario izatera: konpromiso politikoak, sindikalak, fededuna izatea edo, besterik gabe, denbora librekoa izatea. Pertsona hainbatek motibazio daude. Batzuek era kontzientean erabakitzen dute boluntario izatea. Beste batzuek, aldiz, arrazoi argirik edo zehatzik gabe hartzen dute erabakia. Horrelakoez, zenbait kasutan behintzat, kontraesanak agerian gelditzen dira. Gizaldera etortzen den zenbait jendeak ez du Caritasekin lan egin nahi, Elizarekin lotura duela. Baina ondoren Caritasek sustatzen duen jantoki batean lan egin dezakeen galdetzen dute. Horrek erakusten du pertsona horiek modu batera edo bestea

ekarpena egin nahi diotela gizarteari. Horregatik diot garrantzitsuena jendeak laguntzeko prestutasuna agertzea dela. Norbanako bakoitzak pixkanaka topatuko du bere lan esparrua.

Zein da boluntarioen ohiko profila?

Lan ildoaren arabera aldatu egiten da profila. Kirol arloan, esaterako, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira. Arlo sozialean, berriz, emakume gehiago aritzen da lanean. Dena den, adineko emakumeak dira boluntario-rik egonkorrenak. Horiek jarraikortasunez betetzen dute ardura. Gazteak ere animatzen dira boluntario izatera, baina gerora, familia izatean eta, utzi egiten dute.

Egonkortasuna eta jarraikortasuna aipatu dituzu. Zergatik dira garrantzitsuak?

Boluntariotzako elkarteek erreali-

tatea eraldatzeko prozesuak sustatu nahi dituzte, eta jendea joan-etorrian ibiliz gero, zailagoa da eraldaketa prozesu horiek aurrera eramatea. Gainera, kasu askotan egoera hauskorrean dauden pertsonekin lan egin behar izaten dute boluntarioek, eta pertsona horiei ez die onik egiten beren bizitzetan joan-etorrian dabilen jendea sartzea. Egonkortasuna behar dute. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonak, bakardade egoeran daudenak, lagunik ez dutenak... ondoan izango duten pertsona bat behar dute. Beraz, boluntario izan nahi duten guztiek kontuan hartu behar duten gauza bat da hori. Izan zaitezke boluntario curriculumerako ona delako, lagunak egin nahi dituzulako... Arrazoi horiek guztiak dira legiti- moak, baina kontuan hartu behar da beste aldean badagoela ekin- tza boluntario horien hartzailea

den pertsona bat, eta, gutxienez, gure erabakiek ez dutela haren- tzat kaltegarriak izan behar. Beraz, bai; konpromisoa eta jarraikortasuna garrantzitsuak dira.

Eguno testuinguruan, erraza al da boluntario egonkorra topatzea?

Gaur egun ez dugu ia egonkortasunik lan arloan, familian, harreman afektiboetan... Hori dela eta, bakarren batentzat boluntariotzan jarraikortasuna eskatzea arraroa izan daiteke, eta zenbait pertsonak atzera egiten dute. Baina boluntario izatea arduraz hartu beharreko erabakia da. Gaur egun gozatzeko ez da erraza egonkortasuna lortzea, eta horregatik egiten dute atzera zenbaitetan. Dena den, izan zaitezke boluntario astean ordu bat lan eginda, *online* egin dezakezu ekarpena... Boluntario izateko era asko daude. Denbora es-

kaintzea ez da erraza, baina lehenetasun kontua ere bada.

Izan al du eboluziorik boluntariotzak?

80ko hamarkada izan zen boluntariotzaren *boom*-a. Orduan sortu ziren gaur egun ezagunak diren GKEak nahiz elkarteak, eta urteak aurrera joan diren heinean elkarre berri asko sortu dira, lan ildo ezberdinetakoak. Desegin diren taldeak ere badaude. Garai batean, aisialdiko elkarteak boluntarioz osatzen ziren, baina gero, lanpostu bihurtu ziren, behar bat zegoelako. Gizarte sarea administrazioa baino lehenago antolatzen da. Boluntarioek egiten dituzten gauza batzuk beti behar-ko dira. Horregatik pentsatzen dut ez dela zerbait negatiboa elkarre desegitea. Denborarekin beste batzuk sortuko dira, beste problematika batzuei erantzuteko. Boluntario kopuruaren ehu-

nekoak gorabeheratsuak izan dira azken hamarkadetan, eta joera horiekin batera, boluntarioen izaera nahiz konpromisoa ere aldatu egin dira, oro har. Gizalderak gerturatzen diren herritarrei begiratuta, gordin ikusten dut egoera; batez ere, lehen aipatutako jarraikortasunak atzera botatzen dituelako elkarre taratan animatzen diren pertsonak. Gizarte aldatu den heinean, boluntariotzan ere izan dira aldaketak.

Galdetzerako edo informatzerako joaten direnek zer eskatzen dute gehien?

Egia esan, denetarik entzun dut agentzian lanean hasi nintzenetik. Gauza bat da zerbait egin nahi izatea eta ez jakitea zer. Baina beste gauza bat da Afrikara joan nahi duzulako boluntario sartzeko edo animaliekin lan egin nahi duzula azpimarratzea. Dena den, beti diot: ezin jakin pertsona horiek nola eboluzionatuko duten. Posible da gutxien espero duzun izateko boluntariotzaren finena eta konprometituena. Gustura lan egiteko eremua bilatzea da garrantzitsua.

Eskertzen al da boluntarioen lana?

Jende askorentzat inozo batzuk gara. Dena den, badaude egiten dugun lana aitortzen duten pertsonak eta erakundeak. Era berean, kritikatu ere egiten da boluntarioen lana, hobetu daitezkeen

gauzak ere badaudelako, baina horren jakitun gara, eta gauzak geroz eta hobeto egitea da erronka. Pertsona askok ez dute ulertzen gure jarduna. 'Zertarako egiten duzu lan ordaintzen ez badizute? Zergatik joan behar duzu laguntzera?' bezalakoak entzutea ohikoa da. Horrelakoetan oharitzen zara zein garrantzitsuak diren bizitzan zehar jasotzen ditugun balioak, familian, lagunartean, lantokian... Inoiz pertsona boluntariotzaren eza gatu ez dutenei zaila egiten zaie haien jarduna ulertzea. Ikastetxeetako programaren helburuetako bat da gazteei balio horiek transmititzea. Saiatzen gara ikasleei azaltzen badagoela hirugarren sektore antolatutako bat, eta horri esker bada goela gaitasuna gizartearen eragiteko, izan GKEetan, arlo sozialeko elkarre taratan edo auzo nahiz herrietako elkarre taratan lan eginda.

Boluntariotzako zenbait elkarte Sareginez sortu zenuen. Nondik dator sareteko behar hori?

Elkarre taratan antzeko arazoak edo kezkak izaten dituzte sarritan: boluntario falta, kudeaketa arazoak... Elkarre esperientziak eza gatzeko beharretik sortu zen Sareginez, eta, era berean, elkarre gandik ikasteko eta boluntariotza sustatzeko helburuarekin. Izan ere, noren ardura da boluntariotza sustatzea? Ez al da arraroa

“Edozerk bultzatzen zaitzake boluntario izatera”

“Adineko emakumeak dira boluntariotzaren egonkorrenak”

erakunde publiko batek gu boluntario izatera animatzea? Erakundeek boluntariotza sustatu edo lagundu behar dute, haientzat ere onuragarria delako, baina gauza bat da laguntzea eta bestea horren gaineko ardura hartzea. Sareginez esker elkarre taratan sartzea lortu dugu, eta modu horretan baita elkarri laguntzea, egiten dugunari zabalkunde gehiago ematea eta boluntarioen formazioa indartzea ere.

Ba al dago gustuko duzun baina joratu ez duzun lan ildorik?

Txikitan misio elkarre taratan etortzen ziren eskolara, eta horrek kooperante izateko grina piztu zidan. Denborarekin, ordea, ikusi dut norberaren etxean ere bada goela zer egin eta zer ikasi. Beraz, oraingoz ez dut ezer berririk egiteko asmorik. Ezin jakin zer etorriko den gero.✱

“Denbora eskaintzea lehenetasun kontua da”

“Erakundeek boluntariotza lagundu behar dute”



BERRIKUNTZAK-REFORMAS
www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Abendako poligonoa, 2
Tel. 943 135 016
Zarauz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumala

San Juan, 16 edo, AOR
Tel. 943 862 110
Azkoitia

Gesalega Kalea, 18
Tel. 943 148 241
Zestoa

Nork nahi du armiarma bat?

Armiarma bat agertu zait etxeko sabaitik zintzilik. Jostari. Tamaina txiki-koak direnean ez dut menpean hartzeko arazo handiegirik izaten. Bera edo ni. Espazio berean ezin garela bizi negoziatzen saiatzen naiz, alde egiteko aukera eskaini, oinetako zola erakutsi aurretik. Ez dakit psikoanalistek zer esango luketen gaiaz, baina niri armiarma hanken mugimenduak ezinegona sortzen dit; nire azalean gora irudikatzen ditut, kontrolik gabe. Eta ikara.

Denok izaten ditugu aurre egin beharreko beldurrak, beharrezkoak omen iraun ahal izateko. Oraindik aurre egiteko prest ez gauden egoeretatik alde egiteko balio digute, baina batzuetan egoera horiek pilatu egiten zaizkigu. Korapilatu.

Aita hil berri zaion ikasleari besarkada bat ematea, atzo zeure onetik atera zintuenari irribarre bat eskaintzea, egun txarra izan duena kontsolatzea, hitzarekin jolas egiten saiatzea, ume izatetik ateratzen ari direnei babes gune bat luzatzea, gizarteak onartu nahi ez dituen leku bat badutela sentiaraztea, edozein izanagatik ezinbestekoak garela azpimarraztea. Horiek eta gehiago egun bakarrean bizitzea/egitea suertatu zaizkidanak. Eta hobe ez pentsatu egiteke geratu direnetan. Zorionekoa naiz guzti honetan nire ekarpena egin dezakedalako. Baina bidea aldapatsua da.

Beldurgarria, baina ederra

Ez da erraza jendearekin lan egitea. Norbere burua zalantzan jartzea eskatzen du, beldurrak onartu, bildu eta aurrera egiteko adorea bilatzea. Espero ez zenituen ateak zeure borondatez irekitzea. Iritsi ezinaren sentsazioarekin aritzea. Egitera iristen zarenari balioa ematen ikastea. Lanaldi osoan ez bazaude, hilaren bukaerara nola iritsiko zaren beldurrez egotea. Eta hala ere, zeinen ondo bizi garen irakasleak.

Beldurra eragiten diguten egoeren aurrean atzerantz egiteko joera daukagu. Ostru-



|||||||olatx aranguren||||

|||Denok izaten ditugu aurre egin beharreko beldurrak, beharrezkoak omen iraun ahal izateko



Armiarma

ken antzera nahiko genuke burua lurperatu, ez ikusiak izan. Edo behintzat guk ez ikustea. Baina ezin etengabe burua lurpean mantendu.

Sentitzen dena onartzeari, adierazteari, ohetik jaikitzeari, barkamena eskatzeari, desberdina denari, aldaketari, iluntasunari, ezezagunari, hutsuneari, bakardadeari edo galtzeari diogu beldurra. Korapiloak askatzeko balio duten hariak eten egiten zaizkigu. Egoskorkeriak irabazten digu batzuetan, arrazoiak edukitzearen edukitzeaz galtzeraino. Patxada eta sormena beharrezko zaizkigu edozein egoerari aurre egiteko. Bizitzarengan nahiz norberarengan konfiantza izatea. Pausoa ematera ausartzea, nahiz eta gorputz osoa dardaraz nabaritu.

Aurrera egiteko gaitasuna daukagu hala ere. Edozertara ohitzen gara. Erosotasuna ematen diguten guneak saretzen ditugu, eta ondoren etor daitezkeen aldaketak oztopen saiatu, gure ongizatea eternitateraino luzatzeko asmoz. Etortzeko dagoena blokeatu daukagunari eutsi nahian. Joera gizatiarra da, kostatuta lortutakoa ez da galtzerik nahi izaten. Eta bizitza zerbait izatekotan ez ote aldatea? Ezezagunari aurre egitea eta datorrena onartzea?

Neguak, euriak, hotzak ez digu gehiegi laguntzen gure erosotasunetik atera eta bide berriei ekiteko. Batzuetan, armiarmak zintzilikatzen zaizkigu etxe barreneko egur tarteetatik, eta ez deusa dirudienak nahi baino gehiago aztoratzen gaitu, zerbait egitera bultzatu. "Adorea, beldurrari irabaztea zela ikasi nuen, ez beldurrik ez izatea", zioen Nelson Mandelak. "Ausartena ez da beldurrik sentitzen ez duena; ausartena beldur hori menderatzen duena da".

Armiarma inguratu, kristalezko potoren batean sartu eta beste nonbaiten aske uztea. Horra datozen egunetako nire zeregina. Beldurgarria da, baina ederra aldi berean. Norbaitek hartuko luke armiarma bat etxean?*

SPAM

Bebarrura ailegatu naizenean, bateko eta besteko publizitate orriz beteta ikusi dut gure buzoia. Umeentzako jostailu denda bi, supermerkatu kate bi, elektrotresna denda bat eta ordenagailu konpainia ultraezaguna.

Ettera sartu naizenean, banan-banan pasatu ditut propaganda orriak. Gauza batzuk ez dira inoiz aldatzen: jostailu, arropa, elektrotresna zein ordenagailu, munduak nesken eta mutilen artean zatikatuta segitzen du, panpinak batzuentzat, autoak besteentzat; garbikariak niretzat, taladroa bikotekidearentzat... "Atzera ez dakit, baina aurreragi ez goaz halakoekin", pentsatu dut.

Behin sukaldean, irratia piztu. Gaur egungo umeen salda amniotikotan plastikoa dagoela esaten entzun dut aditu bat; gure mundu honetan, zaharrak direla plastikotan egosi gabe jaiotako bakarrak. Adituak hitz egiten bukatu duenean, iragarki bat sartu dute. Ez dakit Zein aseguru etxek ziurtatu dit ez daukadan bigarren etxean –lehena ere ez daukat jabetzan, ezta zertan eduki ere– okupa bat sartzen bazait, edo errenta ordaindu nahi ez dudan norbait maizter badaukat, bizkor asko botako duela NIRE etxetik. Segidan, ez daukadan –sekula edukiko ez dudana eta ezta zertan eduki ere– oporretarako etxean alarma jartzea aholkatu dit gizon ahots tenplatu batek. "Idiotak garela uste al dute hauek?", hasi naiz bakarriketan.

Negarrez ala barrez hasi

Irrati katez aldatu dut. Albisteak. Ondarearen zerga ezabatzeko eskatu duela patronaleko buru batek; Araba, Bizkai eta Gipuzkoan 194.000 pertsona pobrezia larrian bizi direla; pentsiodunek eta adinean gora eginda daudenentzako erresidentzietako langileek mobilizatzaren segitzen dutela... Zerbitzu sozialen gainbehera albiste; gehien daukate nek gehiago izan dezateneko presioak ere bai. Eta iragarkien txanda hor ere: pentsio



||||||| **amagoia gurrutxaga** |||||

||| **Beti da 'prime time'**
eguneroko lupetza larrosa
usainez kamuflatzen digun
publizitatearen paradisu



plan bat kontratatzeko aholkua etorri da lehenik; zure zaharra zaintzeko etxeko langilea aurkituko dizun enpresa ezin lehiakorragoaren gorazarrea segidan. 43 milioi pertsona unibertsitatea ordaindu ezinean, 28 milioi mediku zerbitzurik gabe eta 18,5 milioi pobrezia larrian dauzkan Ameriketako Estatu Batuetako eredu badator; inolako espanturik eta zurikeriarik gabe zaineratzen digute. "Hauze bai, hauze, zaintza iraultzea!", esan diot inori. Postre moduan, gure egungo bizi martxari eusteko ez dauzkagun bi planeta eta erdi beharko genituzkeela ahanzarazi nahi digun jaurlaritzaren iragarkia: "Birziklapenean oso ondo gabiltza, baina hobe dezakegu". Negarrez ala barrez hasi, *dona dona katona* egitekotan nago.

Sakelako telefonoa hartu, eta hasi naiz Twitterreko txioei begira. Hor ere, publizitate zaparrada: dela automobil marka batena, dela Hollywoodeko azken zinema ekoizpenarena, dela banketxe ustelarena... Mutikoa sartu da halako batean. "Iepa, telebista piztu dezaket?". Nik erantzun baino lehen piztu du. Irratia itzaltzeko esan diot, sikiera. Pantailan, apustu etxe bateko izena daukate jantzita saskibaloi jokalariei ezin osasuntsuagoak. Irratian, "jokatzeari ez uztea da garrantzitsuena" edo antzeko zerbait esaten ari zen itsuen loterariaren iragarkia. *Prime time* betean. Eta beti da *prime time* eguneroko lupetza larrosa usainez kamuflatzen digun publizitatearen paradisu birtualean.

Plastifikatutako salda amniotikotan egosi ostean, SPAM honetara munduratuak gara, Salda Publizitario Antisozial Malapartatu zikinerara.*

GIPU—

Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Bekaren saria, Azpeitira

Iñaki Arregi ikerketa beka irabazi du Enara Eizagirre azpeitiarrak. Hark udalerri euskaldunetan bizi diren Euskal Herritik kanpoko erdaldunek euskararekin zer harreman duten jasoko du ikerlanean.  Julene Frantzesena

Iñaki Arregi ikerketa bekaren lehen deialdian saritu dute Enara Eizagirre azpeitiarra. Hain zuzen ere, Uemako udalerrietako erdaldunek euskararen inguruan dituzten gogoetak aztertuko ditu Eizagirrek, Edurne Urrestarazurekin eta Ekhi Zubiriarekin batera.

2005az geroztik udalerri euskaldunetara iritsi diren Euskal Herritik kanpoko erdaldunek euskararekin zer-nolako harremana duten, zer bizipen bizi izan dituzten eta euskararekiko nahiz bizi diren herriarekiko zer iritzi duten aztertuko dute.

Joan zen urriaren 21ean jaso zuten beka, eta lana gauzatzeko bederatzir hilabeteko epea izango dute egileek. Gainera, 5.000 euroko dirulaguntza eskuratuko dute horiek lana egin ahal izateko. Urtebete pasatuta, 2020ko udazkenean, UEMak antolatuko di-

tuen jardunaldien barruan aurkeztuko dute proiektua hiru lagunek.

Udalerri euskaldunak garatzeko proposamen zehatzak eta bideragarriak biltzeko xedez jarri zuten martxan Iñaki Arregi bekaren deialdia. UEMak sortu du beka, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren babesarekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kontseiluarekin eta UEUekin elkarlanean.

Aurten bi proiektu jasoko dute beka: udalerri euskaldunetako erdaldunek euskararen inguruan dituzten gogoetak jasotzeko azterlanak eta tokiko garapen ekonomikorako estrategiak eraikitze marko kontzeptuala, arkitektura eta metodologiaren inguruko ikerketak. Azken lan hori Joseba Garmedia ekonomian doktoreak eta EHUko irakasleak egingo du.✱



Enara Arregi -ezkerretik hirugarrena- beka banatu zuten ekitaldian.  Uema



Iñaki Bastida.

ESANA DAGO

“Biologikoki interesgarria izan daitekeen molekula organiko jakin bat prestatzeko estrategia berri bat garatu dugu”

“Horrelako sariak jasota ohartzen zara egindako lanak merezi izan duela”

IÑAKI BASTIDA
Espainiako Kimika
Elkartek saritu duen
zientzialaria

“Lehen uste zuten dena 'golferia' zela, bertsolaria izatea eta soinu jolea izatea”

ANJEL LARRAÑAGA
Kupela musika taldeko
abeslaria eta pandero-
jotzailea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35. behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza Autoak**

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Corazon Loco

Zure bizitzan beti daude gorritz markatu-tako uneak. Zer pentsatua ematen dizuten momentuak. Azken urteetan izokinaren pare bizi naizela jakin badakit. Asteburutan lana, alkoholik ez, soziedadea zapaldu ere ez, eta denak Reala direnean, nik realzale eszedentzia eskatu. Hori guztia barneratuta eta onartuta daukat. Urbieta da hori.

Baina bat-batean, kolpetik, beste mundu paralelo batean bizi naizenaren sentipena. Ostiral iluntzean mostradorera arrimatu, lagunei zer behar duten galdetu, eta nokieroko latza: "Corazon Loco". Harrapazak! Ada-

rra jotzen ari dela pentsatu, baina inguruko-en aurpegiak ikusita, mundu honetakoa ez naizenaren sentipen triste. Iniestaren ardo txuria, Bihotz Eroa, erotu gaituk, nahikoa diagu, nora iritsi behar diagu!

Hamarkada bat mostradore atzean pasatu eta nork esan honaino iritsi behar genuela. Eskailapekoa lehenbizi, Pitxonena gero, eta Manso beti. Hori zen txikiteroaren mama gozoa, mundu perfektua. Zer izango ote da hurrena? Santotomasetan txorizo urdina? Astigarragako Pasio Eroa? Don Manuelek aspaldi esan zuen bezala, asko izateak kalte

egiten du. Edo asko jakiteak kalte egiten du ote zen? Antzeko parezido.

PD: kalimotxoa aspaldi utzi nuen alde batera, baina gustura jakingo nuke nire gaztaroko lagun kuttunarengana arrimatzeke orain zer egin behar den. Patxi, zuzenean kalimotxoa eskatzea nahikoa duk ala "kolazko freskagarria Corazon Loco maridatutako nahastea" hobetsi behar diagu? Gargardoak ez nau kezkatzen, baina esan didate garagar zukua eskatzeko Medikuntza ikasteko baino nota hobea behar dela selektibitatean.✱



txetxu urbieta

IKUSTEKO!



GAIZKI APARKATU, ETA ORDAINETAN, MEZUAK.

Autoa nahieran aparkatzea herri kirola da gurean, eta adibide horietako bat da irudikoa. Azoka Plazaren atzealdeko aparkalekuen ondoan, Azoka Plazarako sarbidean, utzi zuen herritar batek autoa. Denbora pixka bat pasatu zuen ibilgailuak sarrera oztopatzen antza, eta norbaitek mezu polit pare utzi zion gidariari autoaren leihoetan. **Uztarria** **Amaia San Vicente**✱

|||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Adinekoen astea

GIZARTEA. Joan zen egun potoloa. Hainbat familiak bat egin eta sendi handiagoa eratu da San Martin egoitzan. Egun bakarra izanik, baina, ospakizun hutsa dela aitortu behar. Izan ere, bada aldea egunerokoari begiratuz gero. Badu alde ilunik, hala nola bakardadea, isilik ematen diren egunak eta lan baldintzak. Oraingoan, ordea, alaitasuna izan da nagusi. Gora San Martin!



|||juan karlos arellano|||



Herri eskuzabala

GIZARTEA. Aniztasuna, inklusioa, zerbitzuak eta abar aipatu dira azaroan herrian; elkartasuna, hitz batean esateko. Eguraldia goibel, argi orduak motz, hotza... Epel antzean etxean gaudenean pizten al zaigu zirrara? Edo Gabonak ate joka direlako da? Izan bat edo bestea, ongi etorri. Izan ere, halako pauso txikiek egiten dute handi herri bat, eta gurea handia eta eskuzabala da inklusioari dagokionez.



Apustu etxeak ez. Eta loteria?

GIZARTEA. Apustu etheen aurkako mobilizazioak eta parte-hartzea iri dagokionez urte zozketa handiena puri-purian. Esanguratsua iruditzen zait. Espainian horren famatua den jokoari ematen zaion garrantzia eta bonboa aipatzekoak dira: loteria tokatzen bada, badaezpada bole-

toa hartu, familiakoak ez bada lagun bategi ekarritakoa daukagu... Baina dakigunez, jokia ez da errenta. Eta kontraesan ugari ditugula ezin dezakegu uka. Nik aurtengoan eutsiko diot, oraindik ez naiz erori...✕

INKESTA

zer egiten duzu
muģikorreko
argazkiekin?

N. Uranga / I. Elustondo

BEATRIZ ISART

47 urte



"Ez ditut argazki
asko ateratzen;
gazteek gehiago
ateratzen dituzte,

antzematen da belaunaldi
aldaketa. Ateratzen ditugun
argazkiak, ordea, senarrak
ordenagailuan gordetzen ditu".

IMANOL AMENABAR

32 urte



"Disco gogor
batean gordetzen
ditut ateratzen
ditudan argazki

guztiak, horretan pixka bat
maniatikoa naiz. Ez naiz argazki
asko ateratzekoa, baina
bidaiairen bat egiten dudanean,
gustatzen zait irudiak hartzea".

RAMON ETXEBERRIA

70 urte



"Mugikorrarekin
eta kamerarekin
ateratzen ditut
argazkiak. Asko

gustatzen zait argazkilaritza, eta
egindako argazki guztiak
ordenagailuan gordetzen ditut.
Irudi gutxi errebelatzen ditut,
lehen gehiago".

AINARA LARRAÑAGA

12 urte



"Argazkia
polita bada,
Instagramera
igotzen dut.

Bestela, eskuko telefonoko
galerian gordetzen ditut
argazkiak. Ordenagailura ere
pasatzen ditut batzuetan".*

Gure semeak

2018ko irailean eta 2019ko otsailean, Azpeitiko, Azkoitiko, Legazpiko eta Donostiako institutu publiko banatan euskararen erabilerari buruzko inkestak egin nizkien D ereduko ikasleei, honako helburu honekin: ikasleek non eta norekin egiten duten euskaraz eta erdarakadak zenbateraino erabiltzen dituzten jakitea. Erabilera sozialari dagokionez, emaitzak gutxi gorabehera espero nituenak izan ziren: Azpeitiko eta Azkoitiko ikasleek ia beti eta ia denekin egiten dute euskaraz. Zehaztasunak zehaztasun, ondorio orokorra zera da: euskararen erabileran etxeak baino eragin handiagoa du bizi-tokiak.

Gramatikari dagokionez ere, espero nuen bezala, Azpeitiko eta Azkoitiko oso gutxi egiten dituzte akatsak. Baina emaitza batzuk ustekabeak izan dira. Adibide bat: "Gure seme-alabak" esan beharrean "gure semeak" –erdaraz bezala– esaten al duten zen galderetako bat. Azkoitian ez nien galdetu, eta espero nuen Azpeitian erdarakada hori ez

zuela inork erabiliko. Baina emaitza bestelakoa izan da. "Gure semeak" esaten dute Donostian galdetutako 237 lagunetatik 58k (%24,5), Legazpin 35etik 9k (%25,7) eta Azpeitian 128etik 27k (%21,1). Beraz, batetik bestera ez dago alde handirik. Baina beste erdarakada bat: "El otro día" euskaraz "beste egunean" esaten dute Donostian 242 lagunetik 26k (%10,7), Legazpin 34tik 2k (%5,9) eta Azpeitian eta Azkoitian inork ez.

Beraz Azpeitian "gure semeak" sartzen ari da, baina "beste egunean" batere ez. Antzeko adibide asko egongo dira, beraz; gauza batzuetan erdararen kalkoak darabiltzate, eta beste batzuetan ez. Normala da, eta horren zergatia aztertzea gai interesgarria izango da. Hizkuntzak etengabe ari dira aldatzen, baita euskara ere. Kasu honetan, "seme" hitzaren esanahia aldatzen ari dela esan liteke. Dena den, hizkuntza aldatuz badoa, hizkuntza hori bizirik dagoenaren seinale ere bada.*



hiromi yoshida

galdetzen hasita, galtzen ari al da
inuxente eguneko zirien ohitura? Uztarria

Azpeititik Donostiara

Eberra da sehaskaren epela, bizitzak erraza dirudi bertatik at begiratzean. Baina barroteetatik ateratzean handia da mundua, hotza eta arrotza. Ni ere goxo hazi eta hezia izan naiz Azpeitiko aire euskaldunaren magalean. San Inazioaren sotanapetik atera ahala, ordea, airea kutsatuagoa dela jabetu nintzen; ahoa lasai zabaltzea geroz eta zailagoa zen.

18 urte betetzean, hiribururen batera joatea bururatu zitzaidan ikasketekin jarraitzera. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolara egin nuen bisita lehenik, Gasteizera gero. Bai bateko bai besteko korridoretan belarriak gorritu zitzaizkidan hainbeste erdal hiztun entzutean. Beraz, hiriburu euskaldunenera joateko nahia nuen, Donostian egin nuen matrikula.

Usteak erdia ustela izaten duela entzuna nuen, eta Donostiara bidaia izan nuen teoria praktikan ikusteko aukera. Hizkuntza erabileraren arazoa

lurraldearena izan ordez, geurea, erabiltzaileona, dela konturatu nintzen. Herri askotako jendea elkartzen ginen; bakoitza Euskal Herriko punta batekoa izanik, komunikatzeko erak era halakoxeak ziren. Hura hala, erraza zen elkar kutsatzea. Nork ez ditu ohi baino ateraldi eta txiste gehiago esan espainolez unibertsitateko garaian? Nik, tamalez, bai! Egoeraz jabetzea da lehenengo urratsa, eta egoskorkerian nork bereari eustea bigarrena. Ateraldi haiez ohartu nintzen geroztik, kontzientzia eta inguruan eragiteko asmoarekin, euskaraz egiten nien guztiei, Euskal Herriko Unibertsitatearen teiltupean, logikaz, komunikazio bideak euskaraz izatea zelako euskal unibertsitatea ulertzeko modu bakarra.

Eta zu, donostiartu al zara inoiz? Igerilekuan zein okindegian euskaraz hitz egiten duten hainbat azpeitiarrek hiriburura doan autobusean esertzean hizkuntza aldatzen dute. Zergatik ote?*



irati aranguren

HAU HOLAXEENK



Ilarak

Ane etxetik atera da. Goizeko 7ak dira, eta lantokira doala, eguneroko auto-ilarak harrrapatu du. Madarikazioka doa, denak ordu berean leku beretik pasatu beharraz kexu.

Anderrek lantokian baimena eskatu behar izan du tramite batzuk gauzatu ahal izateko. Presaka irten da, funtzionarioen ordutegia kritikatzeko duen bitartean. Jendea gainezka dago itxarongela, eta bost leihatiletatik bi bakarrik aurkitu ditu irekita. "Kaka zaharra!", bota du. 165. zenbakia dauka. Bafadaka dabilen artean, 135. zenbakia hasi da keinuka pantailan.

Ekhine kotxea erosteko mailegu eske doa bankura. Hil hasierako jubilatu festa aurkitu du bulegoan. Zain egon beharko du giroa barretu arte. Erlojuari begira, Interneten garaian oraindik kartilla eskuan darabilten agure mapartatuei buruz marmarrear dabil ahopean.

Medikuarenerako txandarik ez dagoen arren, anbulatorioko goiko pisura igo da Bixente. Bidaia bat dauka, eta erdi gaixo sentitzen denez, berpiztuko duen zerbaiten bila jo du medikuaren atea, zain dagoen ilara ikusi duen arren. Bakeak gehiago balio duela-eta sartzeko esan dio bata zuridunak.

Gu izan gaitzke Ane, Ander, Ekhiñe edo Bixente. Gutako edozein eta gure pazientzia eza.

Ettxerako bidean, ordea, gure 'arazoekin' zerikusirik ez duen ilara ikusi dute. Loiola 91 eraikin erraldoiaren alderdi batean pilotuta dago jendea, euripean, aterean bat irekitzeko zain. Gehienek erosketa orga daramate eskuan. Baina gertatzen ari denaz arduratzeko nahikoa denbora galdu dute jada gure protagonista. Berandu da, eta supermerkatua itxiko dute, eta denok dakigu gehien luzatzen den kaxako ilaran jarri ohi garelako beti.*



felipe murillo

Erotikan Plax!

Azpeitiko Gaztelekuko hezitzailea da Ane Arenas, eta hari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

Nola ikusten dituzu nerabeak sexualitatearen eremuan?

Jakiteko gogoz eta gaiari buruz hitz egiteko desiratzen.

Zer daukagu beraingandik ikasteko?

Ez dagoela denentzat balio duen erantzunik. Hezitzaileok erantzunak ematen baino galderak egiten jakin behar dugu.

Zein da gaiarekin lotuta ditzuten zalantzen artetik egiten duten ohiko galdere-tako bat?

Denborarekin lotutakoak: 'Zuk noiz egin zenuen lehen aldiz?'... Galdera hori denbora neurtzeko modu bat da beraientzat, eta horregatik ez diet erantzuten. Denbora norberarena da.

Hezitzaile gisa, zer hobetu nahiko zenuke sexu hezikuntzan?

Norbere gorputzarekin harremanak hobetzeko bideak. Horrela,

ANE ARENAS

Adina. 29 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Hezitzailea.



besteak ulertzeko eta maitatzeko bideak erraztuko genituzke.

Maitasun erromantiko globalizatuaren burbuilan, erraz aurkitzen al dute gaztetxoek beren lekua?

Globalizatzeak hori du; batzuei balio die, eta beste askori, ez.

Askotan entzuten da gaztetxoek erotizatuko dutela gure lurraldea. Zer uste duzu?

haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)

Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, hilabetea: abenduaren 18an
(16:00-19:00) eta 14an (10:00-13:00).

Guztion ardura dela esango nuke: bakoitzak bere garaitik eta bizipenetik egin behar du ekarpena. Hori litzateke benetan aberatsa.

Arreta eskatzen du hezitzaile izateak. Zure bizitza erotikoa zertan jartzen duzu arreta?

Detalle txikiak zaintzean, irudimeanean nahiz originaltasunean.

Norbaiten azala laztantzeko udazkeneko elementurik bai?

Mota ezberdinetako hosto lehorak.

Orgasmo bat izan duzunaren itxurarik egin al duzu inoiz?

Nahiago izan dut behar dudana eskatzea.

Zerk pizten dizkizu zentzumenak?

Jolasak.

Abendu hotzerako kanta berorik?

Janis Joplinen *Summertime*.*





◀▲ KULTURA ETA KIROLA.

Uztarriak 20 urteotan aldizkariako protagonista izan diren herritarrekin hogeia argazki egin ditu. Ezkerraldeko goiko argazkian, Ainara Garcia eta Juan Joxe Agirre argazkilariak ageri dira; aldiz, Iago Azkue eta Julen Revuelta magoak ikus daitezke ezkerreko irudian. Goiko irudiko emakumea Ainara Torvisco kickboxinglaria da.

Hogeia urteen bisai

Uztarria aldizkariak 20 urte bete dituela eta, urteotan paperezko edizioan agertu diren hainbat herritar argazkietara ekarri ditu Xanti Rodriguezek. 📝📷 Uztarria



▲ **EKONOMIA.**

Gazte izanagatik, lehen sektorearen aldeko apustua egin zuten Aiora Etxeberriak eta loritz Igarataundik. Sakona etxalde ekologikoa jarri zuten martxan biek, eta baserriaren munduan ari dira lanean azken urteetan.



▲▼ **GIZARTEA ETA KIROLA.**

Kepa Susperregi Azpeitiko erretorea, Ujala Mehreen adineko pertsonen zaintzailea eta Oihana Orbegozo pilotaria ere elkartu ditu Uztarriak aldizkariaren 20. urtemugaren harira osatu duen erakusketarako.



▲ **KOMUNIKAZIOA.**

Iñaki Elorza 'Txapas' irrati esatari ohia eta Txetxu Urbietak Euskadi Irratiko 'Hiru Erregeen Mahaia' saioaren gidaria.





▲▼ KULTURA ETA KIROLA.

Imanol Arregi 'Iturbide' pandero-jotzaile ezaguna eta Eguzkiñe Peña nahiz Mikel Labaka futbol jokalaririk profesional ohiek ere parte hartu dute Uztarriaren argazkietan.



▼ POLITIKA, KULTURA ETA KIROLA.

Lehen argazkian, Azpeitiko hogei urteotako bost alkateak ageri dira, ezkerretik eskuinera: Nagore Alkorta, Eneko Etxeberria, Iñaki Errazkin, Julian Eizmendi eta Joxe Mari Bastida. Bigarren irudian, berriz, Imanol Lazkano eta Laxaro Azkune bertsolari eta bertso gai-jartzaile ohiak. Hirugarrenean, Maje Larrañaga eta Maier Lizaso Lagun Onak Mendi Bazkunako eta ISBko lehen emakume lehendakariak ikus daitezke. Laugarren irudirako, berriz, Rafael Rezabal Ekaingo kobaren aurkitzailea eta Andoni Albizuri arkeologoaren alargun Maria Jesus Arregi elkartu ditu Uztarriak.





▲▼► **POLITIKA ETA GIZARTEA.**

Goian, ezkerretik eskubidera, Olatz Izagirre 26/11 sumarioko auziperatua, Mikel Azkune 'Egunkaria' auzian epaitua eta Miren Odriozola 'Udalbiltza' auzian epaitua. Behean, Xabi Lozano mutil transexuala. Eta goian, eskuinean, Josean Idoeta Atzegiko presidentea eta Ander Idoeta Atzegiko erabiltzailea.



▲▼ **KULTURA ETA EKONOMIA.**

Goian, Erika Olaizola eta Gurutze Eizmendi ama-alaba aktoreak. Behean, Miren Larrea Orkestra lehiakortasun institutuko ekonomialaria eta Begoña Beobide Iraurgi Berritzeneko presidentea.



► **HEZKUNTZA.**

Ezkerretik hasita, Mertxe Urrestilla, Karmen Arozena, Gema Larrañaga eta Maria Jesus Aranburu lehengotariko andereñoak.



GORKA AZKUNE

ikerlaria

“Gizakien adimena gaindi dezakete makinek”

Informatikako irakaslea eta ikerlaria da EHUn. Adimen artifizialean espezialista, makinen barrunbeak asmatzen aritzen da, gizakien garuna eredu hartuta. 📝🕒 Ihintza Elustondo

Informatikan doktorea da Gorka Azkune, eta adimen artifizialean espezialista. Makinek eta sistema informatikoez gero eta gauza gehiago egiten dituzten garai honetan, gizarteak zer bide hartuko du? Inork ez du erantzun garbirik, baina intuzio batzuk baditu ikerlari azpeitiarrak.

Adimen artifizialaren eremu zara espezialista. Nola azalduko zenuke zer den adimen artifiziala?

Adimen artifiziala eremu dezente hartzen dituen diziplina bat da: matematika, informatika, logika... Adimen artifizialaren asmoa da gizakion adimenaren mailakoa den adimen bat lortzea, edo haratago joatea, baina makinak erabilita. Guk ezagutzen ditugun sistema adimentsuak biologikoak dira: giza-

kiak, animaliak... Eta lortu nahi dena da antzeko gaitasunak ematea makinei. Hori da luzera begirako helburua, baina adimen artifiziala askoz ere gauza txikiagoak edo xumeagoak egiten hasi da. Gaur egun, bi adimen artifizial mota bereizten dira: adimen artifizial ahula eta gogorra edo indartsua. Indartsua gizakion mailako adimen artifizial bat izango litzateke, egun existitzen ez dena; ahula, berriz, ataza espezifikoetan zentratzen den adimen artifiziala da, eta horren adibide ugari ditugu: argazkietan pertsonak bereizteko gai den programa bat, esaterako. Guretzat hori nahiko gauza normala da: Google Argazkiak aplikazioak badu gaitasun hori, Facebookek ere bai... Adimen artifizial gogorra oraindik iristeko dago; askok, gainera, esaten

|||DATUAK||||||||||||||

|||Jaio. 1982ko martxoaren 17a.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi tokia. Azpeitia. |||Lanbidea. EHUko irakaslea eta ikerlaria.

dute hori ez dela posible izango, beste batzuek baietz... Hor dago eztabaida.

Adimen artifizialarena nahi-ko mundu berria da, ezta?

Bai. Gaia aurrena planteatu zuena Alan Turing izan zen, 1940-50ko hamarkaden bueltan. Informatika bera nahiko gauza berria da, eta horren barruan, adimen artifiziala ere bai. Hasierako urte haietan, alderdi teorikotik gehiago lantzen zen gaia, eta teknologia garatzen joan zen heinean, aplikazio praktikoak garatzen hasi ziren.

Zuk informatika ikasi zenuen, eta ondoren, adimen ar-

tifizialean espezializatu zinen. Zergatik murgildu zinen mundu horretan?

Betidanik asko gustatu izan zait adimen artifizialaren gaia. Askotariko interesak izan ditut nire bizitzan, gauza asko gustatu izan zaizkit: fisika, biologia, psikologiaren zenbait arlo... Eta informatika ere bai, noski. Informatika ikasten hasi nintzenean, robotikaren munduan lan egiteko aukera izan nuen. Robotikak ere zerikusi handia du adimen artifizialarekin, eta gustatzen zitzaidan bide hori. Adimen artifiziala ikertzeak guk nola funtzionatzen dugun pentsatzera eramaten zaitu, zer muga ditugun konturatzen, sinpleak diruditen gauzak zein konplexuak diren jabetzera... Horrek denak mundu hori gehiago ezagutzeko bultzada eman zidan.



Gizakia dirudiena baino konplexuagoa da, beraz.

Askoz ere konplexuagoa. Guretzako hain sinpleak diruditen gauza asko makina batean egiten hasten zarenean, zeregin horiek uste genuena baino askoz ere konplexuagoak direla konturatzen zara.

Egun, zertan aritzen zara zehazki?

Erreminta gisa neurona sare sakinak erabiltzen ditugu; hori izan da azken urteetan adimen artifizialaren esparruan egon den iraultzarik handiena. Gaur egun, oso ondo funtzionatzen ari dira, eta jende

asko horiekin ari gara ikerketak egiten.

Zer dira neurona sare sakinak?

Neurona sare artifizialak dira: informatikoki, programa batzuen bidez, neurona baten portaera simulatzen dute, baina sinplifikatuta. Nik

askotan zera esaten dut: neurona sareek gure garuna dute inspirazio, baina ez dute gure garuna kopiatzen, guk ez baitakigu oraindik gure garunak nola funtzionatzen duen. Oraindik ere ulertzen ez dugun konplexutasun pila bat dago gure garunean. Neurona sinple batzuekin osatutako arkitektura konplexuak dira neurona sareak. 2012ra arte, neurona sare oso sinpleak manipulatzeko gai ginen, teknologiak ez zuelako gehiagorako ematen. Baina ordutik aurrera, neurona sare askoz ere konplexuagoak erabiltzeko gai gara, neurona pila bat sortu eta horiek funtzionatzen jar ditzakegu; salto handi bat egin da horretan. Horren ondorioz, hizkuntzaren eta irudien munduak uztartzeko gai izan gara, adibidez.

Orain, arlo horretan ari zara lanean.

Hori da, horretara bideratzen ari naiz indarra une honetan. Irudiak eta hitzak uztartzen ari naiz; hau da, lengoia naturalaren eta ikusmen artifizialaren arteko elkarrekintzak ikertzen ari naiz. Gizakiok informazio pila bat lortzen dugu ikusmenaren bidez, mundua ulertzeko erreminta boteretsuenetako bat da gure ikusmena; eta bestalde, lengoia naturala, hizkuntza, ere oso erreminta boteretsua da mundu hori ulertzeko eta besteekin komunikatzeko. Mundu oso zabalak dira, eta beren arteko elkarrekintzak ere handiak dira. Elkarrekintza horiek ikertzerakoan, atazak definitzen dira. Ataza tipikoena zera izaten da: irudi bat eman eta testuz deskribatzea. Guretzat tontakeria bat da hori egitea, baina makina batentzat oso gauza konplexua da. Neurona sare sakonak eduki aurretik, bi mundu guztiz bereiziak ziren irudiena eta hitzena: lengoaietan lan egiten zutenek ez zuten irudiei buruz ezer jakin nahi, eta alderantziz. Oso erreminta ezberdinak erabiltzen ziren lehen bi arlo horiek lantzeko, baina gaur egun, neurona sare sakonekin lortu duguna da ni mundu horiek batzea.

Adimen artifizialaren munduan, korrante ezberdinak

egon izan dira. Zuk ikasketan sinesten duzu. Zer esan nahi du horrek?

Pertsona guztiok ia-ia zerotik ikasten dugu dakigun dena. Adibidez, ume txiki batek ez daki zer den aurpegi bat, mahai bat edo mugikor bat. Baina mahai, aurpegi eta pertsona pila bat ikusita, haurraren garuna kontzeptu horiek ikasteko gai da. Inork ez du diseinatu haren burmuina mahaiak eta pertsonak eza-gutzeko, ikasi egin du garunak hori egiten. Beraz, datuetatik ikasi du. Hori da ikasketa, guk gaur egun adimen artifizialean erabiltzen dugun metodologia. Guk neurona sare bat egiten dugunean haren egitura osatzen dugu, baina egitura hori gero datu pila batekin entrenatzen dugu, eta ikasi egiten du datuetatik.

Makinek ere ikas dezakete?

Hori da gakoa. Neurona sareek ikasten dutena da neuronak beraien artean nola komunikatu behar diren guk esaten diogun egin behar hori egiteko. Gaur egun horrek askoz ere emaitza hobeak ematen ditu, eta gizakiok dauzkagun ezaugarrietara hobeto gerturatzen da. Baina gerturatzeaz ari gara, oraindik oso urrun gaude.

Zertarako gai dira makinak?

Gauza askotarako. Kontua da adimen artifizial ahulean gaudela oraindik. Hau da, ataza pila bat egiten dituzte makinek, eta horietako asko guk baino hobeto. Baina ger-

tatzen dena da ez direla gai denak batera egiteko. Adibide bat jarriko dut. Go Txinako aspaldiko jolas bat da, hemengo dama jolasaren antzekoa eta Asian arrakasta handia duena. Konbinazio pila bat egin daitezke Go jolasarean, eta jokatzeko ez da batere erraza; oso intuitiboa da. 2016an, DeepMind Alpha-Go programa informatikoa sortu zuen Gon jokatzeko, eta munduko jokalaria onenari irabazi zion makina hark. Jende askok pentsatzen zuen hori ez zela posible, baina gertatu egin zen. Imaginatu makinak zertarako gai diren: kasu hartan, munduko pertsona onenari irabazi zion programa batek. Baina gauza bat kontuan hartzekoa da: partida amaitzean, jokalaria on hark beste gauza pila bat egingo zituen; autoa hartu, ontziak garbitu, liburua irakurri, hitz egin, telebista ikusi... Eta makinak, berriz, Gon jokatzeko bakarrik daki. Makina hori guztiz espezialista da, eta horretan oso-oso ona da, baina guk daukagun adimen orokor hori, gauza pila bat egiteko dugun gaitasun hori, ez dauka.

Gauza zehatz batzuk egiteko gai baino ez dira, beraz.

Ari dira gauza ezberdinak egiteko gai diren algoritmoak eta sortzen, baina agian, lau ataza egiten dituzten makinak garatu dituzte, eta gainera, nahiko erdipurdi egiten dituzte ataza horiek. Gizakiok gauza pila bat egiteko gai gara, eta hori orain-

dik makinek ez dute egiten. Ataza konkretu ugari egiten dituzte, ordea: argazkietan pertsonak eza-gutu, itzulpen automatikoak egin, irudiak testuz deskribatu, irudiei buruzko galderak erantzun testuz, orban batek minbizi zelulak dituen edo ez detektatu... Datu pila bat izanez eta entrenatuz gero, oso oso ondo egiten dituzte zenbait gauza makinek. Hori lortu dugu.

Zertan hobetu da gizakien bizimodua makinei esker?

Hainbeste gauza dira... Adibidez, Googlen edozein bilaketa egiten duzunean, adimen artifizialeko teknikak erabiltzen dira bilaketa horri ahalik eta erantzunik onena emateko. Gure egunerokoan, pentsatzen dugun baino askoz ere gauza gehiagotan dago adimen artifiziala, bai gauza sinpleetan, baita gauza handiagoetan ere: oinarriko zientzia material berriak diseinatzerakoan edo farmazian botika berriak sortzerakoan, adimen artifizialeko teknikak erabiltzen dira. Medikuntzan ere gero eta gehiago ari da sartzen adimen artifiziala, eta ez diagnostikoetan bakarrik. Erresonantzia magnetiko bat egiterakoan, adibidez, sortu diren irudi pila horien berreraikuntza adimen artifizialeko teknikak erabiltza egiten da. Horrez gain, gure mugikorretan ia dena da adimen artifiziala. Erosketaren bat egin nahi dugunean egiten dizkiguten gomendio denak ere adimen artifizialaren

“Adimen artifizialaren eraginez gizartea era ldatuko da”

“Zientifikoki kul toak baldin bagara, ez gaituzte engainatuko”

bidez egiten dituzte, Netflixek adimen artifiziala erabiltza aukeratzon ditu filmak zuretzat... Gomendioak egiten dituen sistema dena adimen artifizialean oinarritzen da; horren bidez ezagutzen dituzte gure gustuak.

Makinen beldur direnak ere izango dira: supermerkatuetan gero eta langile gutxiago dago, zenbait estatutan harrrerako langileak kendu dituzte... Arriskua ere izan dezake adimen artifizialaren erabilerak?

Bai, zalantzarik gabe. Gizarte aldatu egingo da adimen artifizialak aurrera egiten duen heinean. Baina nik askotan zera esaten dut: bere garaian, iraultza industrial ere gertatu zen, eta antzeko zerbait izango da adimen artifizialak ekarriko duena. Industriaren aroan, lurreneko makinak asmatu zituzten, eta langile askok makina horiek



AZPEITIKO IKASTOLA HAURESKOLA
Euzkadi Herria, 47, 48, 49 - AZPEITIA
943 81 31 90
uztaro.azpeitia@haurreskolak.eus



AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI BIHURI
Euzkadi Herria 50. AZPEITIA • 943 81 26 07
01232000@hazkuntza.net



UROLA IKASTOLA BHI
Pardilegi 3, AZPEITIA
943 89 03 35
urola.ikastola@urola.eus



Pausoka pausoka bagoaz aurrera

suntsitu egin zituzten. Gogorra izan zen garai hura, jende asko bidean gelditu zen, baina ordutik aurrera, lanpostu berriak sortu ziren, jendeak beste gauza batzuk ikasi zituen, eta ez zen inor gelditu ezer gabe, komatxo artean. Askok pentsatzen dute automatizazioak oinarrizko lanari edo formazio gutxi eskatzen duten lanbideei kalte egingo diela, baina esan behar da adimen artifizialarekin horren bermerik ez dagoela.

Zergatik?

Adibidez, gero eta gehiago ari gara ikusten irakaskuntza makinek egin dezaketen gauza bat izan daitekeela, agian. Gaur ez da posible, baina etorkizunean, adimen artifizialak egin ahal izango du, behar bada. Eta ikerkuntzan ere gauza bera gertatzen da. Nik, lanean ari naizenean, arazo bat hartu eta horri zer neurona sare aplikatu diezaiokigun pentsatzen dut, eta hori ja makinek egiten dute. Oraindik askoz gaizkiago, baina egiten dute. Makinak berak ikasten du neurona sareak egiten arazo bat askatzeko. Gauza konkretuetan, pertsonak diseinatutako neurona sareek baino hobeto funtzionatzen dute makinek sortutakoek. Ez dago baieztazterik horrek ez digula denoi erasango. Baina pentsatu behar duguna da eraldaketa hori nola kudeatu beharko dugun gizarte bezala, ahal den jende gutxiena lagatzeko bidean. Eta bestalde, pentsatu behar duguna da makinak guk egiten dugun dena egiteko gai diren eguna iristen bada —eta ez dakit iritsiko den— arazoa ez dela izango aberastasuna sortzea, hori banatzea baizik. Aberastasun hori banatzea askoz ere gai politikoagoa da. Gaur egun arazoak baldin badauzkagu aberastasunak banatzeko, etorkizunean ez dakit nola egingo diogun aurre gai horri.

Makinek gizakien adimena gaitzitzen duela lortu aipatu duzu. Uste duzu noizbait iritsi daitekeela une hori?

Zaila da esatea, konplexua da etorkizuna iragartzea. Baina printzipioz, ez dago muga teorikorik ho-

rretan. Kontua da adimena bera ere ez daukagula definituta, ez dakigu benetan izaki bat adimentsua den edo ez esaten. Adibidez, txakur bat adimentsua al da? Nik baietz erantzungo dizut, baina jende askok ezetz esaten du, txakur batek dena instintu bidez egiten duela. Ez dago adostasunik adimena zer den esaterakoan. Eta definizio hori gabe, guretzat oso zaila da esatea zer den adimentsua eta zer ez. 1996an, Deep Blue makinak munduko jokalaria onenari irabazi zion xakean, Gary Kasparovi, eta ordura arte, xakean jokatzeko gaitasuna izatea pertsona adimentsu baten ezaugarritzat jotzen zuten. Baina Deep Bluek irabazi zuenean, jende askok zera esan zuen: "Makina horrek egin duena da aukera guztiak esploratu eta onena aukeratu, eta hori ez da adimentsua izatea; Kasparovek ez du hori egiten". Ez dakigu, agian bai, eta agian ez. Baina zer gertatzen da? Makinek adimentsutzat jotzen ziren atazak egitea lortzen dutenean, jende askok esaten du hori ja ez dela adimentsua izatea. Paradoxa horretan gaude. Beraz, makinek gizakien adimena gaitzitzen duela lortuko ote duten? Galdera horri erantzutea zaila da, ez daukagulako definituta zer den adimena. Baina nik ez dut ikusten inongo muga teorikorik. Nire iritzia galdetuz gero, zera esango nuke: makinek gizakien adimena gaitzitzen duela. Noiz? Ez daukat arrastorik.

Dibulgazio lan ugari eginda-koa zara, baita sari bat baino gehiago jasotakoa ere. Besteak beste, sei aldiz jaso duzu CAF-Elhuyar saria. Zientzia gizarteratzea da dibulgazio lanen asmoa. Arlo hori jorratzea garrantzitsua dela uste al duzu?

Niri beti gustatu izan zait idaztea, eta zientzia ere bai; beraz, oso modu naturalean hartu dut dibulgazioaren bidea. Baina bestalde, iruditzen zait ikerlarion ardura ere badela dibulgazioa. Zergatik? Arrazoi batzuk badaude. Batetik, ikerkuntzaren zati handi bat diru-

publikoarekin ordaintzen da, eta uste dut gure zergekin ordaintzen den hori zer den gizarteari kontatu egin behar zaiola. Bestetik, nik sinesten dut gizarte kulturen batek zientifikoki kultura izan behar duela. Gizarte batek, zientifikoki kultura eta orokorrean kultura denean, askoz ere erabaki hobek hartzen ditu. Gizarte demokratiko batean bizi nahi badugu, gizarte horretako herritarrek ondo jakin behar dute zer erabaki hartzen ari diren. Eta gaur egun, gezurra ematen du, baina erabaki pila batek oinarri zientifikoki indartsuak dituzte atzean. Adibidez, hor dugu homeopatiaren kasua: zientifikoki frogatuta dago ez duela funtzionatzen. Telebistan denetarik esaten dute adituak ez diren pertsonak, eta zer gertatzen da? Hori zientzia gaitzen oso in-kultuak direla eta askotan sartzen dutela hanka. Nutrizioaren eta osasunaren kasuan ere berdin. Gauza asko aztertuta daude, eta hori transmititu egin behar zaio gizarte-ari, jendeak erabaki onak har ditzan. Zientifikoki kulturen baldin bagara, politikariek ez gaituzte engainatuko. Klima aldaketarena da beste adibide bat. Politikari asko ari dira esaten klima aldaketa ez dela existitzen, baina komunitate zientifikoren %90ek baino gehiagok diote gertatzen ari dela, eta gainera, gizakia dela horren erruduna. Ez baditugu hartzen hartu behar diren neurriak, planeta pikur-

tara joango da. Eta gizartearen jende askok ez daki hori.

Zientzia herritarrengandik urrun dagoela iruditzen al zaizu?

Bai, hala da. Baina jendea esfortzu handia egiten ari da zientziaren arloan, eta Euskal Herrian, oso pribilegiatuak gara zentzu horretan; gaiari lotutako askotariko egitasmoak antolatzen dituzte. Dena den, iruditzen zait beti publiko bera joaten dela ekitaldi horietara; zaila da publiko orokorrengana iristea. Baina ez dago besterik, saiatu egin behar da, gauzak egiteko beste modu batzuk pentsatu behar dira. Gakoetako bat da esparru orokorreko komunikabideetara iristea. Albistegietan zientziari buruz gehiago hitz egingo balitz, sekulako aurrerapausoa emango genuke. Zientziak ez dauka batere protagonismoa egunero ikusten ditugun albistegietan. Kirola, politika, ekonomia, gizarte gaiak... lantzen dituzte, eta horiek bilakatzen dira jendearentzat garrantzitsuak. Eta ez diot hala ez direnik, baina zientziak ez da ia hitz egiten.

Zer egin daiteke gizartearen eta zientziaren arteko muga hori lausotzeko?

Egiten ari garenaz aparte, zaila da gauza gehiago martxan jartzea. Hori bai, benetan falta dena da erakundeen aldetik bultzada, komunikabideetan eta gure egunerokoan sartzeko zientzia.★



Urolan barrena, aukerarik onenak
Bidaiek, irteerak, ibilaldiak egiteko zerbitzua
NAHIERANI!




Ugarte Industrialea, 54 - AZKOITIA - 943 85 11 59
info@laguipuzcoana.eus - www.laguipuzcoana.eus
La Guipuzcoana • @LaGuipuzcoana

Elikadura saretzen

Urtebeteko bidea egin du bertan ekoiztutako elikagai osasuntsuetan oinarritutako jangela ereduak sustatzeko Azoka Plaza 2.0 egitasmoak. 📌📍 Nerea Uranga

Ekinez eta eginez, urtebeteko ibilbidea egin du Azoka Plaza 2.0 egitasmo pilotuak. Elkarlanean oinarrituta, elikadura osasuntsuaren eta jasangarriaren nahiz bertako ekonomiaren sustapenean sareak ehuntzen jardun du bide horretan; tokiko elikaduraren kateko katebegiak lotzen, alegia. Irailetik, Azpeitiko eta inguruko udalerrietako hamabost ekoizleren produktuak egitasmoa batu diren jangela kolektiboetara eramaten ari dira: San Martin egoitzara, Azpeitiko Ikastola Ikasberrira, Iraurgi Ikastetxera, Uztaro Haurreskolara eta Sanagustin kulturgunera. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai ere proiektuaren parte da, baina egun ikastetxe publikoek dituzten mugak medio, ezinezkoa izan zaie jangela hornitzea. Azoka Plaza 2.0 elkarlanean ereindako egitasmoa da, eta horren parte dira Azpeitiko Udala, Urkome Urola Kostako landa garapen elkarte, Artxara kooperatiba (Elikagunea) eta EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Mirene Begiristain eta Saioa Sese dira ordezkariak). Askotariko eragileen kooperazioari esker, Eusko Jaurlaritzatik jasotako bi urterako dirulaguntzaren bidez heldu zioten egitasmoari urtarilean.

Azpeitiko Azoka Plaza eraberrituan du jatorria proiektuak, Aintzira Oñederra (Azkoitia, 1984) Azoka Plaza 2.0 egitasmoaren dinamizatzaileak azaldu duenez: "Eraikina eraberritzearekin batera, lehen sektorea sustatze-



Azoka Plazan betetzen dituzte jangeletarako produktuen otarreak Elikaguneko kideek.

ko apustua egin zuen Azpeitiko Udalak, azoka egiteko beste modu batzuk bultzatuz. Esaterako, Elikagunea sortu zen; denda egitura dauka, baina izaeraz produktua ekoizten denetik platerean eskaintzerainoko bide osoa jorratzeko helburu eta baliabideak ditu. Aldi berean, astearteetako eta ostiral arratsaldeetako azokak zaintzeko gogoaz aldatu zen; alabaina, ikusi zen Azoka Plazatik haratago beste bide batzuk ere jorra zitezkeela herrian, hala nola bailarako baserrietan ekoizten ziren produktuak herriko beste leku batzuetan ere eskaini zitezkeela, herriko jangela kolektiboetan edota jatetxeetan”.

Zuzeneko harremana oinarrian

Urtarrilean hasi ziren Azoka Plaza 2.0 egitasmoaren lehen urratsak egiten. Ordutik, tokiko elikadura kateko hainbat eragileren arteko harremanak estutzeko lanean ari dira, “harreman zuzena” katebegi guztietan ardatz hartuta, Oñederraren arabera. “Azoka Plazara erostera joaten garenean, baserritarrekin dugun zuzeneko harreman hori sareko eragi-



Oñederra, Azoka Plaza 2.0-ren dinamizatzailea.

le guztiekin izatea dugu helburu. Horregatik, bilerak eta informazio saioak egiten ari gara ekoizleekin, jangeletako arduradunekin eta ikastetxeetako zuzendariekin, jangeletako erabiltzaileak diren gurasoekin, elikaduran adituekin... Uste dugu elkarren arteko harremanak ezin duela komertziala izan, gure arteko komunikazioak eta elkar ezagutzak emankorra izan behar duela”.

Hamabost dira ekoizleen taldea osatzen duten baserritarrak, eta askotarikoak eskaintzen dituzten produktuak, konbentzionalak nahiz ekologikoak: barazkiak, fruituak, arrautzak, esnekiak, ogia eta produktu elaboratuak. Loiolako Etxearreta baserriko Kristina Murillo (Ibarra, Gipuzkoa, 1974) baratzezaina da ekoizle taldeko kideetako bat, eta gustura dago esperientzia berriarekin: “Pozgarria da, guk baserrian ekoizten ditugun barazkiak eskaintzeko beste bide bat delako. Taldelanean ari gara, eta elkarrekin jardutea ona da. Azoka Plaza 2.0 hasi aurretik ere barazkiak eramaten genituen Uztaro Haurreskolara. Orain, egitasmoaren bidez bideratzen dugu gure produktua hara eta jangela batzuetara”.

Ekoizleen sarea ehuntzeko prozesuan lan mardula egin dute hilabeteotan. Oñederrak azaldu duenez, eskaintza jangeletara bideratu aurretik, katalogo bateratua eta planifikazio kolektiboa jorratzen jardun dute. “Lehenik, bertako produktua sartzeko zer interes zegoen jakiteko, jangeletako arduradunekin eta sukaldariekin hitz egin genuen. Segidan,

lanketa baserritarren taldean egin genuen. Izan ere, ekoizle txikiak dira, eta orain arte baikoitzak bere erara jardun du. Prezioak bateratu eta eskaintza kolektiboa osatu dugu”.

Baserrian sortutako produktu hori jangelako sukaldara iritsi arteko erdibideko lana, logistika lana edo, Elikaguneak egin ohi du. Hau da, ekoizleek hara eramaten dituzte produktuak, bertan erabiltzaileen eskariak koordinatzen, jangeletarako eskaera prestatzen eta garraiatzen dute. Astean hiru egunetan egiten dute banaketa.

Baratzeetatik eta baserrietatik ateratako elikagaiak hurrengo egunean jasotzen dituzte jangeletan. “Gertu erein, hazi eta landutako produktu freskoa, nutritiboa eta osasungarria” iristen da erabiltzaileengana, Oñederraren arabera. “Erabiltzaile diren jangeletako arduradunen aldetik interes handia ikusten dugu bertako eta kalitatezko produktuen aldeko apustua egiteko”. Horretan bat dator Manolo Aizbitarte San Martin egoitzako zuzendaria ere: “Gure egoiliarrek kontuan hartuta animatu ginen proiektuan parte hartzera. Alde batetik, egoiliarrek estimatuko zutelako betiko jateko hori: baserrikoa, sasoiak eta freskoa. Beste aldetik, haien osasunerako ere onuragarria izango delako elikadura hori”. Egoitzan catering zerbitzua dute, eta irailetik hark eskaintzen dizkien produktu batzuk Azoka Plaza 2.0koekin ordezkatu dituzte egoitzan. “Jangelako zerbitzuaz hitz egiteko egoiliarrekin biltzen gara urtean pare bat aldiz, eta haien iritzia jasotzen dugu. Saio horietan gustuko duten jatekoak eta menuak aritzen gara hizketan. Bertako produktuak eta betiko jatekoa gustuko dituztela azaldu ohi dute”.

Elikadura kateko katebegiak lotu ditu Azoka Plaza 2.0 egitasmoak, tokiko elikagai osasuntsuetan oinarritutako jangela sustatzeko ahaleginean. Arantzarik gabeko bidea ez da izan, ordea. Dena den, aurrerapausoak eman ahala, sortutako oztopoak gainditzeko elkarlanean jarduteko konpromisoari heldu diote proiektuko kideek.

Egitasmo pilotu gisako izaera 2020ko abendura artekoa du Azoka Plaza 2.0k. Bitarte horretan, sarea sendotzeko zer egin badutela azaldu du Oñederrak: “Jangeletako menuak bertako eta garaiko produktuetara egokitzen, ikerketan, formakuntzan eta produktu berriak eskaintzen, oraindik badaukagu zeregina”.

Urtarrilean erein zituzten asmoak, eta dagoeneko ernatu da bertako elikadura katea.✱



Zortzi abizen euskaldun

Ez, ez dut idatziko hain eza-
gun eta topikoz jositako, askok eta askok
ikusi genuen filmaz. Zortzi abizen euskaldun
dituen emakume argentinarrak, Mirentxutaz,
ariko natzaizue. Beno, zortzi, bedera-
tzi, hamar... abizen euskaldun dituen ema-
kumeaz.

Kasualitate xelebreak badira gero... Agian
batzuek beste izen bat erabiliko dute: patua.
Duela hogeiren bat urte, Inauteri igandea.
Boni laguna Tolosara doa jai arratsaldez,
Urrakin barrena. Eguraldi petrala, negu-
negukoa. Elur lapatza bide ertzetan. Mendatetik
gertu, auto bat bide ondoan, kieto, ez aurre-
ra, ez atzera. Gure lagunak, samaritar on be-
zala, gelditu eta laguntza eskaintzen die. Au-
toko gidaria euskalduna, beasaingarria. Be-
rehala jabetzen da, ordea, bidaideetako bat
argentinarra dela, haren hizketaren doinu-
gatik. Eta, a ze kasualitatea: Boniren familiar-
tekoa bizi den herriko maistra da emakumea,
Glewkoa, Buenos Aires ondokoa. Gainera,
andereak ezagutu egiten du Boniren senitar-
tekoa. "Oh, sí. Ignacio el Vasco. Ya le conoz-
co".

Mirentxuri esker

Beno bada, halabeharrezko topaketa hura
medio, ondorio aberats eta ugari jaso dugu
nik eta kuadrillak. Argentina ezagutzeko pa-
rada ezin estimarriagoa izan dugu, Mirentxuri
esker. Argentinara egindako bidaietan, aire-
portuan zintzo zain egoten zen; eta goizeko
zazpietatik gertu hoteleko sarrerako gelan,
presto hiria erakusteko. Ez geografia baka-
rrik, Argentinako historiaz ere asko ikasi
dugu. Birraitonak eta aitonak nafarrak eta
Beasaingoak zituen. Batzuk bizitza berri
baten bila joan ziren Argentinara; eta beste-
ak, bere aitona Alejandro beaisandarra beza-
la, polizonte, ihesi, Marokoko gerra saiheste-
agatik.

"Zenbat ahalegin, esfortzu eta neke... eta
zenbat lortu zuten! Oi, asko zor diegu euskal-



luis gurrutxaga

III Maria Ignacia Larumbe,
Iturriaga, Iceta, Aramburu,
Apestegui, Elustondo...
Mirentxu, emakume xarmanta



dun migratzaileei", dio Mirentxuk. Gaur egun
jubilatuta dago. "Guernica izeneko herrian
hasi nintzen lanean. 05:30ean jaiki, trena
edo busa hartu, eta zuzendaria zain izaten
genuen erregelarekin eta tinta gorriarekin...
Berandu iritsiz gero, deskontua. Inoiz ez nin-
tzen berandu ailegatu", kontatu du, harro.
"Sei urte igaro nituen herri horretan, urtetik
urtera eskola berriak ezagutuz. Euria egiten
zuenean, katiuska luzeekin joan behar, asfal-
torik apenas baitzegoen. Eta beste 32 urte
egin nituen beste eskola batean, Glewn".
Hona etorritako bidaietako batean ikastolara
eraman nuen, eraikina ezagutu zezan, eta ha-
rrigarria egin zitaidan haren komentarioa:
"Jesus, leihoetako kristal guztiak osorik
daude! Eta hormetan ez dago idatzirik..."

Politikaz ere mintzatu izan zaigu anderea,
nahiz eta lazgarria egiten zaion. Saminduta
du arima eta benetako sufrikarioa adierazten
du politikoen jokabidea aztertzean. Bera
argentinara sentitzen da, baina begira zer
dioen: "Zuk badakizu Euskal Herria maite du-
dala. Nire sustrai guztiak hangoak dira, eus-
kaldunak. Han etxean bezala sentitzen naiz,
eta nire birraiton-amonez eta aiton-amonez
sarri pentsatzen aritzen naiz. Nola ihesi etorri
ziren lur oparo bila. Topatu zuten, eta jakin
ezazu, ni argentinarraren peto-petoa izan arren,
eurek erakutsita aunitz maite dudala Euskal
Herria".

Maria Ignacia Larumbe, Iturriaga, Iceta,
Aramburu, Apestegui, Elustondo... Miren-
txu, emakume xarmanta. Zorioneko gu, eza-
gutu zaitugulako eta hainbat une jori zurekin
partekatzeagatik. Eta zorionekoa Paulinoren
autoaren matxura hura. Kasualitatea, patua,
destinoa, zoria, adurra... ze inporta?*

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUEN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

AZPEITIA

MATXIN HARATEGIA - Harzubia Iribidea, 26

BALENTIN ODRIOTOLA HARATEGIA - Arana, 14

ELIKAGUNEA HARATEGIA - Plaza Nagusia, 11

Kasu bat eta ertz asko

‘Nik sinesten dizut. Bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua’ liburua aurkeztuko du Azpeitian egileak, Samara Velte kazetariak, Emakumeen Txokoaren eskutik.  Mailo Oiarzabal

Nik sinesten dizut. Lelo horrek indarra hartu zuen 2016ko sanferminetako talde bortxaketa kasu ezagunaren biktimari babesa erakusteko. Eraso hura eta hark eragindako erreakzioak, haren epaiketak eta epaiak utzitakoak abiapuntu hartuta idatzi du Samara Veltek (Zarautz, 1991) *Nik sinesten dizut. Bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua* liburua.

Maiatzean aurkeztu zuen lana. Aleka bildumaren zortzigarren liburua da kazetari zarautzarrarena, eta *Berriak*, Elkarrek, *Jakinek* eta Txalapartak elkarlanean argitaratu dute. Liburua irakurri dute-

The logo for DATUAK, featuring the word "DATUAK" in a bold, orange, serif font. To the left of the text are three vertical orange bars of increasing height, and to the right are ten vertical white bars of varying heights, all set against a teal background.

III Zer. 'Nik sinesten dizut'
liburuaren aurkezpena,
Samara Velteren eskutik.

|||Eguna. Abenduak 11
(asteazkena). |||Ordua.
18:30 |||Tokia. Emakumeen
Txokoa. |||Antolatzailea.
Emakumeen Txokoa.

nek zein irakurri ez dutenek izango dute han jasotzen denaz zer-bait gehiago ikasteko aukera Azpeitian, abenduaren 11n Emakumeen Txokoan izango baita Velte, egin duen lana aurkezteko.

“Nahiko ohikoa den gertakari bat –festagune batean gertatuta–ko eraso sexista bat– horren ikoniko zerk” bihurtu zuen aztertzen ahalegindu da Velte, eta horren emaitza da liburua.

||ALEKA BILDUMA||

8

alea. Jakin aldizkariaren, Berria egunkariaren eta Elkar eta Txalaparta argitaletxeen bildumako orain arteko azkena da Velterena.



Samara Velte. **III Amaia Urbietta Arruti (Urola Kostako Hitza)**

|||BESTERIK|||

1 Egunean Behin jokoaren finala

Sakelakoen mundu birtualetik aurrez aurreko fisikora igarota, Egunean Behin galdera-erantzunen jokoaren denboraldi honetan emaitza onenak lortu dituztenak Azpeitian elkartuko dira.

||| **Eguna.** Abenduak 14
(zapatua). ||| **Ordua.** 12:00

III Tokia. Sanagustin
kulturgunean. III Antolatzailea.
Codesyntax.

2 Green Valley, zuzenean

Reggae eta dancehall taldeak kontzertua emango du Sanagustinen.

||| **Eguna.** Abenduak 14
(zapatua). ||| **Ordua.** 22:30

|||Tokia. Sanagustin
kulturgunea. |||Antolatzailea.
Kulturaz kooperatiba.

3 Santo Tomas eguna

**Asteburuarekin dator aurten
herriko festa egitarauaren
urteko azken hitzordua..**

||| **Eguna.** Abenduak 21
(zapatua). ||| **Ordua.** Egun osoan
||| **Antolatzailea.** Azpeitiko
Udala.✱

|||Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak
Urko: 618 96 49 95 / Jori: 649 12 02 71
ikaergilanak@gmail.com www.ikastistemak.com
20730 AZPEITIA

 **AIZPURU AUTOAK**
KOBANİ TİCARET

Tel: 043 81 23 89
Fax: 043 81 22 81

aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net

Amtsox 17, 20730 AZPEITIA

ZELAI-LUZE

Jarduera ezberdinetarako gunea, herritarren zerbitzura

Urte batzuk itxita egon ostean, berriro ireki dute Marcial Ucin zenaren Zelai-Luzeko bulegoen eraikina. Herritarrei zerbitzua ematea da proiektuaren asmoa, hutsik dagoen lekuari bizia emanez. Bertan, jarduera anitzetarako gelak ipini dituzte herritarren eskura.

Neurri ezberdinetako bulegoak, aretoak, gelak eta biltegiak jarri dituzte alokairuan. Gainera, coworkingerako edo lankidetzarako hamabi postuko gunea egokitu dute, ekintzaile berriei lanerako erraztasunak eskaini asmoz. Parking zerbitzua ere badute.

Askotaniko jarduerak egiteko aukera ematen duen lekua da Zelai-Luzekoa. Hau da, aterabide komertzialeko jarduerak egiteko ez ezik, ikastaroak, erakusketak nahiz bilerak egiteko gelak ere eskaintzen dituen gunea da, besteak beste. Espazioa erabat egokituta dago, eta ekipamendu aldetik, hornituta. Beraz, berehala lanean hasi nahi duenarentzat aukera aparta da. Lankidetzarako gunearen alokairua 120 eurokoa da hilabeteko.

Dagoeneko badaude Zelai-Luzeko eraikinean lanean hasi diren enpresak eta norbanakoak: Xareko (marketing eta komunikazioa), Mireia Cabanillas (kinesiologia eta par biomagnetiko), Udalai (kirol masajeak) eta Miren Ibarguren (psikologia).

Eraikinaren ateak zabalik daude interesa duten herritarrentzat. Beraz, etorri, ezagutu eta zalantzak argitu.


Helbidea: Foru Ibilbidea 14

Harremanetarako : 688 81 33 36 /

info@zelailuze.com




HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

* Igerilari azpeitiarra

SUDOKUA



||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK |||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin

1. Amaierarik ez dutenak. 2. Azpeitiko Kultur Mahaiaren Kooperatiba. Uranioa balio du. 3. Utik, ospa! Zerbait osatzen duten zatietako edo gaitako bakoitza. 4. Metatua. Kontsonante bikoitza. 5. Uka-pen, ukazio. Alderantziz, txistu, listu. Sagu, hitz elkartzeetan. 6. Zer pertsonari? ... baterako, adibidez. 7. Jatorria adierazteko atzizkia. Kontsonante errepikatua. Musika nota. 8. Ipar Euskal Herrian, esku-muturrak. Bokala. 9. Kontsonantea. Tiro egilea. 10. Auzotegia. Hodeietatik maluta edo pikor zurietan erortzen den ur.

Goitik behera

1. Gorputzean orratz meheak sartzean datzan sendabidea. 2. Mutilak. bokala. 3. Aluminioa balio du. Aztarna, arrasto. 4. Arnas ezak hila. Bokal mehea. ... de Janeiro, Brasilgo hiria. 5. Atsegin. Euskal Herriko egunkaria. 6. Araudia, arau multzoa. 7. Olatua, uhina, uhaina. Sufrearen ikur kimikoa. Ne-kazarien lanabes. 8. Gabezia. Bizkaieraz, arlote, narras. 9. Lehenengo bokala. Itoarazi. Metal bikainenaren ikur kimikoa, hauxe da, urrearena. 10. Soldadu taldeen egonleku edo bizileku den eraikina, kaserna. Kontsonantea.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

||| HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK

BIDALTZEKO EPEA. Abenduak 23 (astelehena) ||| NORABIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali, edo atera argazkia eta posta elektronikoz bidali.

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

R	E	●	A	E	R	A	U	K	S	E	●
U	T	A	I	R	R	I	T	●	O	P	A
Z	U	R	R	E	●	K	E	K	I	L	●
●	S	E	R	●	A	U	K	A	L	A	B
K	●	E	R	E	K	U	M	●	A	U	●
A	R	E	B	O	T	●	O	B	A	P	A
N	A	B	E	●	I	A	L	A	●	M	●
I	K	I	X	T	A	R	E	●			
K	V	X	T	E	P	E	X	T			
J	Z	J	E	●	E	●	T	●			

SUDOKUA

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

||| UZTARRIAREN AZAROKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Maixol Muguruza
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 221. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Enaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

■ **ELKARRIZKETA** ■ Maria Angeles Amenabar (Korta Saria jaso du)

“Bizkorrak izan ginen zubiola kooperatibaren enpresa proiektua aldatzen”

■ Joxe Mari Kortaren Bidetik fundazioak proposatuta, aurtengo Korta sarietako bat jaso du Maria Angeles Amenabarrek (Azpeitia, 1946). Pertsonen bizitza eta enpresa ibilbidea saritzea dute xede sari horiek. Amenabarrek bere ibilbide profesional nabarmenena Zubiola kooperatiban egin zuen; jubilazioa hartu aurreko azken hemezortzi urteetan kudeatzailea izan zen.

Nola jaso duzu Korta Sarietarako izendapena?

Hariduraz. Ohore bat da Joxe Mari Kortaren Bidetik fundazioak ni proposatu izana saritzeko.

Zubiola kooperatiban hasi aurretik zer ibilbide profesional izan zenuen?

16 urterekin hasi nintzen lanean Azpeitiko udaletxeko bulegoan, azterketa bat gaingitu ondoren. Denbora gutxira, orde, lege berri bat jarri zuten indarrean, eta haren arabera, 18 urte baino gutxiagokoek udalean ezin zuten lanean jardun. Ondorioz, bi neska kaleratu egin gintuzten. Segidan, 17 urterekin, Euskalduna kooperatiban hasi nintzen kontabilitatean eta administrazioan. 21 urterekin ezkondu eta lanari utzi egin nion, garai hartan



ko kooperatibetan ezkondu emakumeek ez zutelako lanean jarraitzeko aukerarik.

Hurrengo urtean gure alaba jaio zen, eta 23 urterekin, semea izateko nengoela, istripu larria izan genuen: gizona eta semea galdu nituen, eta neu txikituta gelditu nintzen. 24 hilabete behar izan nituen osasunez neure onera etortzeko.

Orduan, nire jaiotetxera itzuli nintzen bizitzera, Etxebeltzera. Familia guztiari esker, alabak eta biok aurrrera egin genuen.

25 urterekin berriro hasi zinen lanean, Zubiola kooperatiban.

Bai. Garai hartan Zubiolak bi dibisio zituen: makinarena eta erremin-tarena; biak egurraren esparruko-

ak. Une gogorrak ziren haiek niretzat eta, lana egiteaz gain, nire kompetentzia profesionalak eguneratzeari ekin nion. Bost urtez, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko CESEAk eskaintzen zituen urrutiko Enpresagintza Teknikak eta Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza ikasketak egin nituen. Arlo profesionaletik aparte, Azpeitiko Udaleko zinegotzi aukeratu ninduten, eta lehenengo udal demokratikoan lau urtez aritu nintzen, alabaren heziketaz ahaztu gabe. Hori guztia oso ondo etorri zitzaidan nire bizitza pixkanaka berriro ere orekan jartzen hasteko.

Zubiolan kudeatzaile izan zinen 1989tik 2007ra. Nola-koak izan ziren urte haiek?

Zubiola enpresa txikia zen, eta makinak egiten zituen dibisioa galduta zuen ordurako; berriro ere kolokan zegoen enpresa, inoiz baino egoera larriagoan. Errektore Kontseiluak gerentzia hartzeko eskatu zidan, eta onartu egin nuen. Erronka bikaina eskaini zidaten.

Beste hainbat enpresaren gisara, lehiakortasun gutxiko produktu heldu batekin gelditu ginen. Garai txarrak ziren, eta horri guztiari, globalizazioa erantsi behar, gainera. Ingurua okertzen hasi zitzaigun: hasieran, produkzio handiko Europako multinazionalak sartu ziren lehian, eta Asiakoak ondoren.✱

■ Elkarrizketa osoa uztarria.eus-en

KIMU BAT GARDEN

Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun illetsu, lumadun eta ezkatadunentzako eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, 2/g. AZPEITIA

Azoka Plaza 2.0

Bertako elikagai osasuntsuetan oinarritutako jangela ereduak sustatzeko plana da Azoka Plaza 2.0. Herriko proiektu pilotu horren berri eman zidatenean, nire buruari galdera potolo bat egin nion. Jangelan behin ere jan ez duten hiru seme-alaben ama gisa batetik, eta nutrizionista gisa bestetik, erantzun bat nahi nuen: nire seme-alabentzako nolako jangela gustatuko litzaidake? Etxekoa bezalakoa! Konfiantzazkoa, orekatua, osasuntsua, nahikoa eta kalitatezkoa. Uste dut aurreko esaldian edozein gurasok bere seme-alabentzat nahiko lukeen jangela deskribatu dudala.

Lehengaiak eta animaliak non, nork eta nola landatu dituen edota hazi dituen jakiteak zer jaten ari garen erakusten digu. Bertako eta garaiko produktuek balio erantsi hori dute, konfiantza ematen digute. Aberatsagoak dira, bitamina eta mineral gehiago baitituzte. Heldutako lehengaiak dira, beren puntu onenean jasotakoak. Ezin ditugu alderatu kanpotik ekarritako barazkiekin, gure mahaira ondo heldu gabe jaso, biltegi-ratu eta garraiatu ondoren iristen direnekin. Jaten dugunak elikatu egin behar gaitu!

Familia, eskola eta herria nutrizio heziketaren eremu naturalak dira. Gure umeei ondo jateko eskubidea dute, eta guk haiek ondo elikatzeko betebeharra. Erronkari eutsi diozueno, zorianak!*



|||||aitziber aizpuru|||||

IÑIGO AGIRRE Gabonetako apaingarrien saltzailea



1. Erakusleihoa prestatzen, zenbat urte?

1977tik; aurretik osabak ere jartzen zuen.

2. Gero eta lehenago prestatzen duzu...

Azken sei-zortzi urtean azaroko hirugarren asterako.

3. Jaiotza ala pinua?

Pinua.

4. Gehien saltzen den Gabon apaingarria?

Jaiotza ez bestelakoak eta euskal ukitua dutenak.

5. Joerak aldatu dira?

Bai, azken hamarkadan, batez ere. Lehen jaiotzak saltzen ziren gehien.

6. Aita Noelik eskatu al dizute?

Bai, baina herritarrek badakite irudi hori ez dagola gure dendan.

7. Argiak, nolakoak?

Kolore bakarrekoak.

8. Erakusleihoa inoizko zikinen...

Bai, baina ni pozik umeen aurpegiak ikusita.*

Nerea Uranga

IRENE ALTUNA
ORADENA
Loiola-Bida, 26 Tel. 943 81 51 87
www.altunscenda.com

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Ekain
ALBAYARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 10 40
Larmaldia:
943 15 10 40

Alar
merceria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK
Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Jose Gado, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

uba
Kontakuntza
Itaketa
Gestioiariak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa
Tel. 943 151 222 Fax: 943 151 272
Loiola Bida, 41 • Tel. 943 81 51 87

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 55 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTEA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 18:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00
Jose Arretxe kalea, 3
943 81 28 08
arredibaina@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

Koh Tao
OSAEARRIAK +
PIERCING ESTUDIOA
Jose de Arretxe, 14 - 20730 Azpeitia • 943 81 776 730

Oroitzapen kutxa irekita

Alkate karguak bizitza antolatzea eskatzen duela dio. Bidaiatzea “beharrezkoa” du egunerokotik ihes egiteko. 📝👁️ Elena Margüello



Azken hilabeteetan asko aldatu da Nagore Alkortaren (Azpeitia, 1978) bizimodua. Hamalau urtez Urnietako Udalean lanean aritu ostean, orain dela bi urte eta erdi itzuli zen Alkorta jaioterrira lanera. Azpeitiko udal teknikari lanetan aritu da joan zen maiatzean alkate izendatu zuten arte. Ordu-tik, denbora librea eta lana “ondo kudeatzen saiatzen” ari dela azaldu du.

“Jende artean” hazitako haurra izan zen Alkorta. Aitona-amonak, osaba, ama, aita eta ahizpa bikiarekin bizi izan zituen haurtzaroko

urteak. “Garai batean txakurra ere izan genuen: *Xarpi*. Etxean beti zegoen giroa”, gogoratu du azpeitiarrak. Mojetan egin zituen haurtzaroko ikasketak, eta urte haiek “gogorrrak” baziren ere, ikastetxean zein handik kanpo “jolas askoko haurtzaroa zoriotsua” bizi izan zuela oroitzen du.

14 urtera arte Miserikordian ikasi zuen: “Garai hartan, ordea, institutu publikora pasatzea erabaki genuen neska talde batek. Kristau eskolatik institutura joatea ikuspegi aldaketa izan zen. Izan ere, Miserikordian es-

katzen zuten diziplina oso handia zen: egunero errezatzen genuen eta hilean behin konfesatzera joaten ginen. Institutuan, berriz, inork ez zigun ezer exijitzen. Irakasleekin genituen harremanak ere desberdinak ziren, azkoitiarrak ere bagenituen ikasgelan, kalera gehiago ateratzen ginen... Esperientzia oso desberdina eta aberasgarria izan zen”.

Garai hartako oroitzapen ederrak ditu Alkortak, tartean Lagun Onak futbol taldean igarotako uneak. Eskola garaian futboleko ibiltzen zirela gogoratzen da: “Nahiz eta txak-

rrak izan, oso giro ona izaten genuen taldean". 14 urte bete zituztenean, ordea, federatu beste aukerarik ez zuten futboleko jokatu ahal izateko, eta egunkarian irakurri zuten Lagun Onak nesken talde bat osatzeko asmotan zebilela. "Hitzordu bat jarri ziguten, eta futbol zelaian batu ginen guztiok. Horrela osatu genuen Lagun Onakeko nesken lehenengo taldea". Samurtasunez gogoratzen du taldearekin aritu zen urtebete hura: "Garai hartan, agian, ez ginen ohartzen emakumeen lehenengo taldeko kide ginela, baina orain atzera begiratu eta oroitzapen oso politak datozkit gogora".

Institutuko garaiak pasatuta, Zuzenbide ikasketak egin zituen azpeitiarrak. Egunero joan-etorrian ibiltzen zen Azpeitia eta Donostia artean. "Unibertsitateko lehen urte erdia oso gogorra egin zitzaidan. Ama gaixotu egin zen, gurasoen tabernan hasi nintzen lanean, eta gainera, ikasketetan beti izan naiz oso perfektionista". Egoera berriak heldutasunerako bidea "azkar" erakutsi ziola adierazi du Alkortak. Lanean lehen soldata irabazi orduko Donostiara joan zen bizitzera kuadrillako lagun batekin eta lankide batekin. Donostian hiru urtez bizi izan zen, eta ondoren Astigarraga eta Hernani (Gipuzkoa) ere izan zituen bizileku. "Bost urteren ostean nire bizitza Azpeitian erakitzea erabaki nuen. Herrimina sentitu nuen berriro".

Zaletasunak abaro

Alkate izateak "ondo" antolatzea eskatzen duela adierazi du Alkortak, eta esan du "beharrezkoak diren ardurak onartzen" saiatzen dela, etxean nortzuk dituen ahaztu gabe. Horregatik, egunerokotasunean alabarekin eta senarrarekin egoteko denbora hartzea gustatzen zaio azpeitiarrari: "Asteburuetan, tarte bat izaten dudanean, alabarekin igerilekura joateak deskonektatzen laguntzen dit". Zapatueta, berriz, lagunekin edo senarrarekin kalerara atera eta zerbait hartzea ere atsegin du Alkortak. "Kale zalea naiz, eta jendearekin egotea gustatzen zait. Kalera irteten naizenean, laneko gauzak alde batera laga eta nire betiko jendearekin egotea gustatzen zait.



1. Alkorta Namibiara (Afrika) egin zuen bidaian. **2.** Alkorta eta bere alaba elurretan. **3.** Alkorta, beheko ilaran erdi-erdian, txikitako lagun taldearekin merienda batean.

Hori da egunerokotasunetik deskonektatzeko daukadan modua".

Zinemara joatea ere "gustuko" duela azaldu du Alkortak, nahiz eta umeen filmak bakarrik ikusten dituen aspaldian. Zinema eta kontzertuak biak gustatzen zaizkio, nahiz eta beti izan duen zinemarako zaletasun handiagoa. Gogoan du Donostian bizi izan zen garaian "sari" joaten zela zinemara: "Orain, berriz, gustuko filmak eta kontzertuak ikusteko tarte hartzen saiatzen naiz".

Ihesaldiak arnasgune

Bidaiatzea zaletasuna du Alkortak, eta zaletasun hori "beharrezkotzat" dauka. Neguan, Frantziako Pirinioetara eskiatzera joatea gustatzen zaio, eta bidaia hori Urtezaharra igarotzeko tradizio bilakatu dute Alkortak, haren senarrak eta haien haurrak. "Batzuetan, distantzia fisikoa jartzea ondo dago. Urtezahar eguna kanpoan igarota benetan deskonektatzea lortzen dugu". Noizean behin "ihesaldi txikiak" egiten ere saiatzen da alkatea, egunerokotasunean "ondo" moldatzen bada ere, "eskertzen" baitu ezagutzen ez dituen lekue-

tara joatea. "Ihesaldi handiak egiteko denborarik ez dudanez, bidaia txikiak eginez disfrutatzen dut".

Dena den, Alkortak badu errepikatu nahi duen esperientzia bat. 30 urterekin, bizitzera Azpeitira itzuli zenean, beste lau lagunekin eta ahizpa bikiarekin Namibiara (Afrika) hiru aste bidaia egin zuen. Bidaia antolatu bat egin zuten orduko hartan, eta bidaia hasi eta berehala, Londresko aireportuan, Madrilgo, Katapultariako eta Murtziako (Espainia) beste hamabost lagunekin elkartzeko ziren azpeitiarrak. "Karabana batean zeharkatu genuen Namibia, 3.000 kilometrotik gora egin genituen". Bidaia hark "asko" lagundu ziola azaldu du; izan ere, "kezka batzuekin" joan bazen ere, abiatu zenean baino "askoz ere lasaiago" itzuli zela sentitu zuen. "Nire bizitzako bidaia izan zen".

Alkortak badu bizitzarako esaldi bat: "Bet esaten dut bizitza honetan hobe dela egin dituzun gauzengatik damutzea, egin ez dituzun gauzengatik damutzea baino". Pentsatzen jarrita, atzera begiratu eta "gauza desberdinak" egin dituela sentitzen du Alkortak: "Horrek satisfazioa sentiarazten dit".*



Pinturak eta Parket Laminatuak

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermargoak.com

ESKELA ZERBITZUA

Uztartia.eus webgunean
eskela jami nahi?

Deitu 943-1500 30 telefonoa edo bidatu Uztartia.eus erabiltzailearen izena (Pinturak eta Parket Laminatuak)

III TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

III FARMAZIAK (ABENDUA)

1-2-9-16-24-27-28-29
Aranburu (Azpeitia).
943811350

5-13-19-23-31
Beristain (Azpeitia).
943811949

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abenduaren 11n eta 23an,
17:00etatik 21:00etara,
anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

III ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. **GAZTELEKUA** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

III ERABILGARRI



▲ 'ZIRRIKITOTIK', KALERA.

Emakumeen Mahaia 'Zirrikikitik' fanzinearen 0 zenbakia kaleratu du. Herriko hainbat txokotan eskura daiteke, hala nola Emakumeen Txokoa, Gaztelekuan, anbulatorioan nahiz GIBen.

III GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

4-11-18-21-22-26
Jacome (Azpeitia).
943080258

GAUEZ, URTE OSOAN
Arrieta (Azpeitia).
943811274

3-12-14-15-17-25-30
Alberdi (Azpeitia).
943815974

6-7-8-10-20
Arrieta (Azpeitia).
943811274

MAMADOU TOULADIO DIALLIO

Guinea Conakry

“Hiru ardatz ditut: pertsona, etika eta zoriontasuna”

2001ean Guineatik irten zenetik, hainbat herrialde igaro du Dialliok, eta egun Azpeitian bizi da, Ainhoa Alberdirekin. Etxean hartu du hark.  Ihintza Elustondo

Zergatik utzi zenuen Guinea?

18 urterekin alde egin nuen, ikastea nahi nuelako. Leku asko pasatu nituen Azpeitira iritsi aurretik: Paris, Guadalajara [Espainia], Madril, Bilbo eta Oñati. Lanaren bidez ezagutu nuen Ainhoa, eta berarekin Garoan tabernari hasi nintzen gero. Gainera, etxean hartu ninduen, eta berarekin bizi naiz ordutik. Urtebete daramat Azpeitian.

Egun, zertan aritzen zara?

Tabernako lana amaitu zitzaidan, eta lan bila ari naiz orain. Oñatin bizi nintzenean, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradua ikasi nuen Mondragon unibertsitatean, eta horrela, nire helburua betetzea lortu nuen. Ikasketa horiek garestiak izanagatik, unibertsitateak ez zidan inolako oztoporik jarri, eta orain, arlo horri lotutako lan bat aurkitzea da nire helburua. Bitartean, ikastaro bat egiten ari naiz.

Beste hainbat gauza ere egiten duzu.

Tabernan jende asko ezagutu nuen, eta haiekin planak egiten ditut. Gaztetxeko kideekin Esklabetako proiektuan murgilduta nabil, esaterako. Gainera, asko gustatzen zait mendira joatea, paseatzea eta lagunekin zer-

bait hartzea. Ondo hartu naute hemen, etxean bezala sentitzen naiz. Jendeak asko lagundu dit, arlo askotan.

Zure emaztea eta seme-alabak Belgikan bizi dira. Gogorra izango da hori.

Bai, oso gogorra. Elkarrekin egon nahi dugu, baina kontu administratiboak oso poliki joaten dira. Urteak daramatzagu tramiteetan, baina oraindik ez dugu lortu elkarrekin egotea. Halere, borrokan segituko dugu. Udan etorri zen nire familia Azpeitira, eta asko gustatu zitzaion leku hau. Gustura biziko ginateke guztiok hemen.

Zer gustatzen zaizu Azpeititik?

Jendeaz aparte, paisaia: mendia eta leku berdeak. Guinean herri txiki batean bizi nintzen, naturaz inguraturiko leku batean, eta haren antza hartzen diot gune honi.


Nola ikusten duzu etorkizuna?

Etorkizunera begira, hiru ardatz ditut: pertsona, etika eta zoriontasuna. Jende asko ikusi dut diruaren atzetik korrika zoriontasun bila, baina zoriontsu ez dena. Uste dut pertsona baloratu behar dela, eta etika kontuan izanda egin behar direla proiektu guztiak. ✱



1. Diallio emaztearekin, seme-alabekin eta Ainhoa Alberdirekin, udan, Aittolan. 2. Hernio mendian. 3. Urrestillako Txikuri pilotalekuan.

3.763 kilometrora dago Guinea Conakry.



Zahartzarotik haurtzarora

E

lias Kerejetari elkarriketa egitera joan behar Madrilera eta, sarean zebilen grabazio batean aditu nion, "Saint-Exuperyk esaten zuenez, haurtzaroa da norberaren aberria. Nire haurtzaroa Hernani da, Hernani da nire aberria". Eta, gero, txikitako lagun aspaldiko bati eskaini zion eman berri zioten saria. Donostiako Espainiako Zinemaldian, inondik ere. Aditu nionetik josita daramat burutzar gaztandi honetan: "Haurtzaroa da norberaren aberria".

Eta autoa garai batean perretxiko ikastolaren jolasleku izandakoan utzi eta plaza aldera jo dut Artetxenekoa paretik. Poetaren anaia pozik saludatu, hari lan fina eragin, eta astotegi parera jo dut arkupeetan barrena. Eta Joxe Luixen poesia, geure hura: *"Ene herriko plazak arku asko ditu / eta hala ere / bere begi goibelean ez da inor galdu / arku asko ditu / eta behin ere / ez dute aurkitu / ziba gaztearen buruko txintxeta / Babelgo dorrearen behean / ene herriko plazak arku asko ditu / bere habe artean haurren jolasa gordetzen du"*. Ederragorik, nekez.

Emozio gehiegi

Eta nire herriko plazako arkupeetatik irteeran, han non datorren baten bat, ezagutzeko urruti, baina ez, hala ere, haren ibilera ez ezagutzeko behar bezain urruti. "Ibilera hori...!". Eta, hurreratu, eta Miren. Eta Miren esanda, da Lurdes, gure Lantziegoko Lurdes, eta da Josu, eta da Itsaso, eta da Unai, eta da... bizitza bat eta bizitza asko aldi berean. Mundualdi bat, nahi izanez gero. Eta da emozio mordoa. "Ardoa Ameriketara saltzen ari dira orain!".

Eta segi, bihotza zimur-zimur, Azoka Plazako zubia pasatu eta Artzubi aldera, eta, han, kontrako espaloian, beste bihotz bat. Miren da hau ere, baina Miren hau Arantxaren ama Miren da. Ikastolan ikasle ibilitako Arantxa, ikastolan zuzendari ezagututako Arantxa. Eta betiko irribarrea begi sorginetan, eta konpli-



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Hau itomena, arnasa estua.
Tratu hau pasatzekotan,
haurtzarora batere
ez joanda hobe



zitatea, eta Garmendipeko haizeak jotako etxepearen istorioa, nik zeharo ahaztuta nekana. "Letzen dizkizut, bai!". "Letu, bada, hurrengoa ere, hantxe erretratatu zaitut!". "Aizu, niri ez zait protagonismorik gustatzen!". Mirenek.

Eta aurrera, hitzordua dugu eta. Eta lanak egin eta izkinako irish pub edo dena delakora. Eta han ere baten bat hoska ertzetik: "Hi, zer?! Herrira?". Mikel da, garai bateko irakasle laguna, makina bat korrika saio elkarrekin egindakoak, Behobia, eta Donostiako maratoia. Biboteari tira eta esaten zuenean: "Hi, afari kokorren bat egin beharko diagu, ba!". Eta eskribitzen dituenak, eta ondoan duen lagunak, Irixarrek, eskribitzen dituenak. Bere buruarentzat eskribitzen duena. Horiexek idazlerik onenak.

Eta hainbeste haurtzaro eta hainbeste Azpeitia eta hainbeste kontu... onena alde egitea izango dela erabaki dudanean, herriari azkeneko buelta ematerakoan... aurpegi eza gun bat, oso ezaguna, baina 40 urte gehiago dituen. Isabel. "Isabel!". Eta zer moduz eta "Igual-igual zaude!". "Bai, zu ez zaude igual-igual, eta nola egongo naiz ni, bada, igual-igual!". Eta gurasoak, eta "akordatzen al zara?" eta poza, biona poza, eta telefonoa hartu eta...

Hau itomena, arnasa estua. Tratu hau pasatzekotan, haurtzarora batere ez joanda hobe. Hobe zahartzarora joan. Nik ez daukat kulparik, zahartzarora ere haurtzarora azaldu zait niri. Erabaki dut: puskatean ez naute ni Azpeitian ikusiko. Emozio gehiegi.★

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com

MILAR LARRAMENDI



Julio Urkio etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Muribe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41 www.sukaldeak.eus

www.milar.eus

**Gabon
hauetan egin
OPARIAK
Azpeitiko
No+Vello-n!**

no+vello

**Gabon hauetako opariak
egiteko dauzkazula?**
Etorri Azpeitiko No+Vello-ra
eta ikusi ditugun sorta
desberdinak.

Ziur asmatzen duzula!

no+vello Azpeitia

📍 Idefonso Gurrutxaga, 8, behea
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

☎ 943 04 44 22

nomasvello.es

